

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko abenduaren 27a

158. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Iruñeko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

—Tafallako Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (28. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Iruñeko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Iruñeko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Iruñeko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Iritzia (7. or.).

II.1. Udalaren 2015eko kontu orokorrari buruzko finantza-iritzia (7. or.).

II.2. Legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia (7. or.).

III. Finantza egoera bateratuak (9. or.).

III.1. 2015eko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria (9. or.).

III.2. 2015 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza (9. or.).

III.3. Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria 2015eko abenduaren 31n (10. or.).

III.4. 2015eko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua. (10. or.).

IV. Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (11. or.).

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2015eko abenduaren 31n (11. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (13. or.).

IV.3. Aurreko ekitaldietako gomendioen betetzea (14. or.).

IV.4. Kudeaketa-alor garrantzitsuak (14. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (27. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (27. or.).

Eranskina: Iruñeko udalaren urteko kontu bateratuen oroitidazkia, 2015eko abenduaren 31ri dagokiona.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:

www.cfn Navarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Iruñeko Udalaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Iruñeko Udalarari 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparruak, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko araudia ere.

Iruña udalerrri bat da, 2015eko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 195.853 biztanle zituen eta 25,1 Km²ko azalera duena.

Udal antolamendua, besteak beste, honako organoek osatzen dute: Osoko Bilkura, zeina ordezkari politikoaren organo gorena baita, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza.

2015eko irailera arte, Udalaren administrazio-egitura, Alkatetzaren 2011ko ekainaren 27ko Dekreturen bidez onetsia, honakoa zen: Alkatetzaren Kabinetea; Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza; Gerentzia eta zortzi gobernu alor.

Alkatetzaren Kabinetea, Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza eta Gerentzia zuzenean alkatetaren menpekoak ziren, eta gobernuko zortzi alorrek zinegotzi delegatuen menpekoak ziren. Zortzi alorrek, zeinetatik hiru bi unitate organikotan xehatzen baitziren, 11 zuzendarik, bi zuzendariordek eta 11 idazkari teknikok zuzentzen zituzten.

2015ean, maiatzeko udal hauteskundeen ondoren, Alkatetzaren xedapen bat onetsi zen, zeinak azaldutako egitura aldatu baitzuen; izan ere, honako aldaketak egin ziren: Gerentzia kendu zen eta zortzi alorrei eutsi zitzairen; horietatik bi alor bi unitate organikotan banatuta daude. Alor horiek une hauetan hamar zuzendarik eta hamar idazkari teknikok zuzentzen dituzte.

Udalak honako ente hauek dauzka zerbitzu publikoak kudeatzeko:


- Erakunde autonomoak
 - a) Udalaren haur eskolak, haur eskolen zerbitzuaren kudeaketarako.
 - b) Hirigintzaren Udal Gerentzia, Iruñeko udalerrriaren hirigintzaren kudeaketarako.
- Merkataritza-sozietateak: Udalak partaidetzaren gehiengo dauka honako merkataritza-sozietate hauetan:

Enpresa	Partaidetzaren portzentajea	Xede soziala
Comiruña, S.A.	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico S.A.	100	Hirigune historikoaren hirigintza
Asimec, S.A.	100	Etxez etxeko laguntza
Animsa	77,69	Udal informatika.
Mercairuña, S.A.	51	Handizkako merkatuak

- Gayarre Antzokiaren Fundazioa, Gayarre antzokia kudeatzeko eta administratzeko.

Gainera, Erruki Etxearen Fundazioa, hirugarren adinekoei laguntza ematen diharduena, Iruñeko Udalarari lotuta dago orain dela 300 urte baino gehiago, baina, Ganbera honen ustez, fundazio pribatu bat da.

Iruñeko Udalaren eta haren menpeko enteen egitura honako organigrama honetan jasotakoa da:



(1) Alor horretan, Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza eta Alkatezaren Kabinetea sartzen dira, zeinak, alor osoak bezala, alkatearen menpe baitaude.

Udalaren eta haren menpeko enteen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honako hauek dira 2015eko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazioaren Sektore Publikoa:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2015-12-31n
Udala	191.499.640	186.701.811	1.450*
Hirigintza Gerentzia	10.707.431	7.962.451	26
Haur eskolak	7.731.269	8.069.406	220

(*) 106 pertsona gizarte enplegu babestuan daude.

2015ean, Udalak 5.361.554 euroko ekarpena egin zien haur-eskolei, eta 3.213.450 euroko ekarpena, berriz, Hirigintza Gerentziari.

- Merkataritza-sozietateak:

Enpresak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Comiruña, S.A.	524.585	483.683	40.902	6,57
Mercairuña, S.A.	1.315.566	1.110.083	205.483	13
ANIMSA	6.614.189	6.706.239	-92.050	113
Pamplona Centro Histórico, S.A.	3.587.110	3.873.646	-286.536	3,5
Asimec, S.A.	1.876.547	1.985.393	-108.846	71,8

- Fundazioa:

Fundazioa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Gayarre Antzokia	2.111.946	2.042.222	69.724	14

Horretaz gainera, Erruki Etxeak honako datu ekonomikoak dauzka:

	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Erruki Etxea	19.723.882	17.527.187	2.196.695	197,72

Udala Iruñerriko Mankomunitateko kidea da, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe presioko saneamendua), hiri-hondakin solidoen tratamenduko zerbitzuak eta hiri-garraioko zerbitzuak (autobusa eta taxia).

2015eko ekitaldirako ez zen aurrekonturik onetsi; izan ere, 2011ko ekitaldiko aurrekontu orokorra eta haren betetze-oinarriak luzatu ziren.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarrenean, gure iritzi finantzarioa eta legezkotasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen dugu, Iruñeko Udalaren 2015eko ekitaldiko urteko kontu bateratuak direla eta. Kontu horien laburpena hirugarren atalean ematen dugu. Lau garren atalean, ondorio eta gomendio batzuk ematen ditugu, gure iritzian eraginik ez dutenak, honako gai hauei buruz: Udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzea, aurreko txostenetako gomendioen jarraipena eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak.

Fiskalizazio-txostenarekin batera 2015eko ekitaldiko urteko kontu bateratuen oroitidazkia, Udalak egindakoa, erantsi dugu.

Azterketa lana auditoriako lau teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak egin du, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin, 2016eko uztailetik hasi eta irailera arte.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko, haren erakunde autonomoetako, enpresa publikoetako eta fundazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak honako karguetan ziharduten pertsonei jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzen:

- Iruñeko Udaleko alkate ohia.
- Iruñeko Udaleko alkatea.

Iruñeko alkateak alegazioak aurkeztu ditu Kontuen Ganberak emandako epean. Alegazio horiek, Ganberak haiei emandako erantzunarekin batera, behin betiko txostenari erantsi zaizkio.

II. IRITZIA

Iruñeko Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Ogasun Alorreko Zuzendaritza da kontu orokorrak egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

2015eko ekitaldiko kontuak Udalaren 2016eko irailaren 5eko Osoko Bilkurak onetsi zituen.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, Udalak bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —garrantzitsua baita entitateak kontu orokorrak egin ditzan— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantza-auditoriako eta legezkotasunaren betetzearen fiskalizazioko gure iritzi aldatuari eusteko, zenbait salbuespenekin.

II.1. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO FINANTZA-IRITZIA

IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

- Udalak Nafarroako Gobernuaren transferentzia arrunt bat jasotzen du bere klase pasiboak finantzatzeko; horien artean toki entitate horren suhiltzaileen kidegoko langileak sartzen dira. Kidego hori desagertutako Nafarroako Larrialdi Agentzian sartuta zegoen. Jasotako diru-laguntzaren zenbatekoa klase pasibo horien urteko kostu garbiaren arabera kalkulatu da. Kalkulu horretan ez da sartu Nafarroako Gobernuaren eskutik jasotako diru-laguntza, 824.388 eurokoa, suhiltzaileen kidegoko langileen kuota patronalaren kontzeptuan ordaindutakoa; horrek, izan ere, kopuru hori egiten duen gehiegizko finantzaketa ekarri zuen, txosten honetako IV.4 atalean zehaztu bezala.

- Udalak udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsioei buruzko azterlan aktuarial bat egin zuen 2009an. Azterlan horren arabera, pasiboen sistematik eratorritako betebeharrak, batez beste, urteko 22,1 milioi eginen dute 2016tik 2019ra doan aldirako. Balantzean ez zen erregistratu etorkizuneko betebeharrak horietarako zuzkidurarik. Oroitidazkian ez da horri buruz informazioa eman.

IRITZIA

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III. FINANTZA EGOERA BATERATUAK**III.1. 2015eko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA**
(Udala eta erakunde autonomoak)

Gastu-aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetako (%)	Aitortutako guztiaren gainean (%)
Langile-gastuak	1	83.337.950	1.491.000	84.828.950	83.861.104	83.395.392	465.712	98,9	42,1
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	70.643.471	-2.930.421	67.713.050	63.374.242	55.330.100	8.044.142	93,6	34,3
Finantza-gastuak	3	2.530.000	1.555.000	4.085.000	3.311.989	3.311.989	0	81,1	1,2
Transferentzia arruntak	4	14.488.111	1.430.061	15.918.172	14.721.215	11.855.137	2.866.077	92,5	8,2
Inbertsio errealak	6	436.200	24.359.562	24.795.762	15.559.403	13.891.683	1.667.720	62,7	6,6
Kapital-transferentziak	7	850.000	3.300.601	4.150.601	3.474.517	3.044.743	429.774	83,7	3,4
Finantza-aktiboak	8	1.387.200	106.000	1.493.200	887.306	883.306	4.000	59,4	0,6
Finantza-pasiboak	9	7.072.000	1.037.000	8.109.000	8.096.665	8.096.665	0	99,8	3,6
Gastuak, guztira		180.744.932	30.348.803	211.093.735	193.286.441	179.809.015	13.477.426	92,1	100

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Betetako (%)	Aitortutako guztiaren gainean (%)
Zuzeneko zergak	1	50.525.400	0	50.525.400	52.683.364	48.877.847	3.805.517	104,3	26,3
Zeharkako zergak	2	5.200.000	0	5.200.000	5.018.226	4.174.329	843.897	96,5	2,5
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	27.694.559	0	27.694.559	31.007.016	26.530.712	4.476.304	111,9	15,5
Transferentzia arruntak	4	93.739.360	1.200.000	94.939.360	96.974.508	94.426.056	2.548.452	102,1	48,4
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	2.833.500	0	2.833.500	2.256.533	2.028.210	228.323	79,6	1,1
Inbertsio errealen besterentzeari	6	0	4.152.359	4.152.359	4.622.693	4.606.464	16.229	111,3	2,3
Kapital-transferentziak	7	0	8.931.800	8.931.800	7.036.507	4.204.567	2.831.940	78,8	3,5
Finantza-aktiboak	8	1.387.200	9.029.557	10.416.757	892.266	787.794	104.472	8,6	0,4
Finantza-pasiboak	9	0	6.400.000	6.400.000	0	0	0	0,0	0,0
Diru-sarrerak, guztira		181.380.019	29.713.716	211.093.735	200.491.113	185.635.979	14.855.134	94,9	100

III.2. 2015 EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA
(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	193.918.711	200.491.113
Aitortutako betebeharrak garbiak	-192.190.702	-193.286.441
Aurrekontu-emaiza	1.728.009	7.204.672
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-4.838.358	-5.382.828
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	8.874.964	4.031.915
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	5.575.082	7.291.599
Aurrekontu-emaiza doituak	11.339.696	13.145.358

III.3. DIRUZAINZTA-GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2015EKO ABENDUAREN 31N (Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia	Aldearen ehunekoa
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	33.332.076	32.045.591	-3,9
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	13.383.156	14.845.926	
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	32.809.132	34.309.147	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	308.861	146.883	
(+) Ordainketen itzulketak	4.585	123	
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-12.816.815	-16.777.196	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-356.843	-479.292	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-31.243.579	-27.787.870	-11,1
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-16.618.951	-13.477.426	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-7.415.906	-7.204.548	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-7.060.452	-6.973.366	
(-) Egiteke dauden itzulketak	-164.815	-147.423	
(+) Aplikatzeko dauden ordainketak	16.546	14.894	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	29.123.129	28.962.727	-0,6
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	21.247.822	21.249.243	0,01
= Diruzaintza-gerakina, guztira	52.459.448	54.469.691	3,8
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	16.353.453	18.581.206	13,6
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	25.596.312	22.479.139	-12,2
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	10.509.683	13.409.346	27,6

III.4. 2015eko ABENDUAREN 31ko EGOERAREN BALANTZE BATERATUA. (Udala, erakunde autonomoak eta Comiruña SA, Pamplona Centro Histórico SA eta Asistencia Municipal en Casa SA udal enpresak)

Deskribapena	Itxitako urteko zenbatekoa (2015)	Deskribapena	Itxitako urteko zenbatekoa (2015)
A IBILGETUA	1.205.359.009	A FUNTS BEREKIAK	1.175.547.483
1 Ibilgetu materiala	530.585.407	1 Ondarea eta erreserbak	743.362.264
2 Ibilgetu ez-materiala	22.443.384	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	21.635.910
3 Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	643.381.343	3 Kapitaleko diru-laguntzak	410.549.309
4 Herri-ondasunak	0	B ARRISKUETARAKO ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	0
5 Finantza-ibilgetua	8.948.875	4 Hornidurak	0
B HAINBAT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	0	C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	93.937.957
6 Kitatu beharreko gastuak	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	93.937.957
C ZIRKULATZAILEA	93.466.874	D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	29.340.443
7 Izakinak	11.984.261	5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	28.861.219
8 Zordunak	49.737.189	6 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	479.224
9 Finantza-kontuak	31.714.092		
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzearagindako doitzeak. Aplikatzeko.	31.333		
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0		
Aktiboa, guztira	1.298.825.883	Pasiboa, guztira	1.298.825.883

IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa labur bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, atal honetako azken idatz-zatian, Ganberaren iritziz, Udalak kudeaketa-alor garrantzitsuetan, antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera, aintzat hartu beharko lituzkeen ondorio eta gomendio nagusiak ematen ditugu.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIO BATERATUA 2015eko ABENDUAREN 31n

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2015erako hasierako aurrekontu bateratuak, 2011ko aurrekontuaren luzapena denak, 181,38 milioi euroko eta 180,74 milioi euroko diru-sarrerak eta gastuak biltzen zituen hasierako aurreikuspenetan, hurrenez hurren.

Nabarmentzekoa da 2012-2015 aldian ez zela aurrekonturik onetsi; izan ere, urte horietako guztietako aurrekontuak 2011koaren luzapenak izan ziren.

Gastuetan eta diru-sarreretan goranzko aurrekontu-aldaketa batzuk eginda, 30 milioi eurokoak —hasierako kredituen ehuneko 17 egiten dute—, behin betiko gastu eta diru-sarrera bateratuek 211,1 milioi euro egiten dute.

2015ean, gastuak 193,29 eurokoak izan dira, ehuneko 92ko betetze-mailarekin eta ehuneko 93ko ordainketa-mailarekin. 2014koak baino ehuneko 0,6 handiagoak izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2015ean 200,49 milioi euroko eskubideak aitortu ziren, ehuneko 95eko eta 93ko betetze- eta kobrantza-mailekin. Kasu honetan, 2014koekiko igoera ehuneko 3,4koa izan da.

Laburbilduz, Udalak 2015ean gastatutako 100 euro bakoitza honako hauetara bideratu ziren eta honela finantzatu ziren:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	43	Tributu bidezko diru-sarrerak	44
Bestelako gastu arruntak	42	Transferentziak	52
Inbertsio errealak	8	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	4
Kapital-transferentziak	2		
Finantza-pasiboak eta -aktiboak	5		

Aurreko datuetatik, nabarmentzekoak dira langileen gastua eta bestelako gastu arruntak, ehuneko 43ko eta 42ko ehunekoekin, bai eta transferentzien bidezko diru-sarrerak ere, zeinek guztizkoaren ehuneko 52 egiten baitute; ondotik zergen bidezko diru-sarrerak datoz, ehuneko 44rekin.

Ondoren, 2015eko ekitaldiko betetze bateratuari buruzko adierazle batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2014	2015	2015/2014: aldea (%)
Diru-sarrerak, guztira	193.918.711	200.491.113	3
Gastuak, guztira	192.190.702	193.286.441	1
Diru-sarrera arruntak	184.623.857	187.939.648	2
Funtzionamendu gastuak	162.610.591	161.956.561	-0,4
Aurrezki gordina	22.013.266	25.981.468	18
Finantza-zama	9.205.582	11.408.653	24
Aurrezki garbia	12.807.684	14.572.815	14
Kapitaleko diru-sarrerak	9.294.853	11.659.200	25
Kapitaleko gastuak	19.176.536	19.033.921	-1
Aurrekontu-emaizta doituak	11.339.696	13.145.358	16
Zorpetze-maila	% 4,99	% 6,07	22
Zorpetze-muga	% 11,92	% 13,83	16
Zorpetze-ahalmena	% 6,94	% 7,75	12
Zorra, guztira	102.096.893	93.926.655	-8
Biztanle bakoitzeko zorra	520	480	-8
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	10.509.683	13.409.346	28

2015ean, Udalak eta bere erakunde autonomoek aitortutako eskubide guztien ehuneko 94 diru-sarrera arruntak dira; ehuneko 5,8 kapitaleko diru-sarrerak dira, eta gainerako ehuneko 0,2a, berriz, finantza-aktiboen bidezko diru-sarrerei dagokie.

Udalak eta haren erakunde autonomoek, funtzionamendu-gastuak eta finantza-zama diru-sarrera arrunten bidez finantzatu ondoren, 14,57 milioi euroko aurrezki garbia lortu zuten; 2014an baino ehuneko 14 gutxiago.

Ikusten da ezen 2014an gertatzen zen bezala, inbertsio-erritmoa jaitsi egin dela: 2012an kapitaleko gastuen 36,46 milioi euro izatetik 2013an 28,38 milioi izatera pasa da, 2014an 19,18 milioi izatera, eta 2015ean 19 milioi izatera.

2015ean, zorpetze-ahalmen bateratua ehuneko 7,55ekoa zen eta guztizko zorra 93,93 milioi eurokoa zen; horrek, izan ere, diru-sarrera arruntan ehuneko 50 egiten zuen.

2015ean, nabarmentzekoa da zorrak ehuneko zortzi —8,17 milioi euro— egin duela behera, aurreko urtekoarekiko, are gehiago kontuan izanda kopuru hori 2014an jada ehuneko 6,5 jaitsia zela 2013koarekiko.

Arriskuen kalifikaziorako agentzia batek BBB kalifikazioa eman zuen 2015eko irailean Udalaren eta haren erakunde autonomoen epe luzeko zorrerako; horrek adierazten du gaitasun egokia duela interesak ordaintzeko eta printzipala itzultzeko. 2016ko irailean kalifikazio horri eutsi egin zaio.

Bestetik, nabarmentzekoa da 2015eko ekitaldiaren itxieran gastu orokorretarako sortutako diruzaintza-gerakina 13,41 milioi eurokoa izan zela, ehuneko 28 handiagoa 2014koa baino; horrek adierazten du likidezia gairik badagoela, zeina hurrengo ekitaldiko gastuak finantzatzeko erabil baitaiteke.

Azken batean, Udalaren egoera ekonomikoa saneatua da, eta bilakaera egokia du adierazle ekonomiko-finantzario nagusietan.

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, SEC'10 Kontabilitate Nazionaleko irizpideak jarraituta, honako enteak jotzen dira tokiko administrazio publikotzat: Udala bera, erakunde autonomoak (Hirigintzako Gerentzia eta haur eskolak), merkatukoak ez diren udal sozietateak¹ (Pamplona Centro Histórico, S.A., Asimec, S.A. y Animsa, S.A.) eta Teatro Gayarre Fundazioa.

Administrazio publikotzat jotzen diren entitateek, 2015eko ekitaldian, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak bete dituzte.

- 14,1 milioi euroko finantzaketa-ahalmena sortu dute.
- Gastuaren araua bete dute, 2015erako ezarritako mugari erreparatuta 5,92 milioi euroko gastu-tartea lortu baitute.
- Zorpetzea diru-sarrera arrunten ehuneko 50 da, ezarrita dagoen ehuneko 110eko mugaren azpitik; eta azken hiruhileko ordainketarako batez besteko aldiak balio negatiboak dauzka²; horrek esan nahi du araudian horrelako gastuak ordaintzeko ezarritako 30 eguneko gehieneko epe-tik —edo 60 eguneko epe-tik, hala erabaki bada— beherakoa dela.

Ondoren, finantzaketa-gaitasunari eta gastu-tarteari buruzko kalkulua erakusten dugu, bai eta batez besteko aldia dela-eta izan diren balioak ere:

Finantzaketa-ahalmena

	Zenbatekoa, 2015
Finantzaz besteko diru-sarrerak	220.051.144
Gastu ez-finantzarioak	205.157.567
Saldo ez-finantzarioa	14.893.577
Doikuntzak:	
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapitulu-takako diru-sarreraren kobrantzak	-1.886.841
Europar Batasunaren diru-laguntzak	1.580.655
Transferentzien bateratzea	-506.300
Finantzaketa-ahalmena	14.081.091

Gastuaren araua

2014ko gastu zenbakarri bateratua	164.684.846
% 1,3ko igoera	2.140.903
Diru-sarreraren igoeraren aurreikuspena	8.600
2015erako aurreikusitako gastuaren muga	166.834.349
2015eko gastu zenbakarri bateratua	160.918.331
Gasturako tartea, 2015ean	5.916.018

¹ Jotzen da ente bat merkatukoa dela haren produkzioa ekonomikoki aipagarriak diren preziotan saltzen bada eta salmentek gutxienez ere produkzio-kostuen ehuneko 50 estaltzen badute.

² Ordaintzeko batez besteko epeak neurtzen du nolako atzerapena gertatzen den merkataritza-zorren ordaintzetan termino ekonomikoetan; adierazle hori Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Foru Legeko ordaintzetarako legezko epeaz bestekoa da. Adierazle horrek balio negatiboak izanen ditu baldin eta Administrazioak fakturak edo obra-ziurtagiria, kasuan kasukoa, aurkeztu eta 30 egun natural iragan baino lehen ordaintzen badu.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	
Lehenengo hiruhilekoa	-5,5
Bigarren hiruhilekoa	-4,85
Hirugarren hiruhilekoa	3,5
Laugarren hiruhilekoa	-2,19

IV.3. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Egiaztatu dugu aurreko fiskalizazioetan egindako hurrengo gomendioak bete egiten direla:

- *Giza Baliabideen Zuzendaritzako langileen programari dagokionez, langileen kolektiboen araberrako sailkapena berrikusi da eta ahal den guztian gutxitu dira eskuz egiten diren eragiketak, egoki jasotze aldera langile mota bakoitzari dagozkion gastuak, eta kontabilitate-akatsak saiheste aldera.*

- *Animsa enpresak Udalari ematen dizkion informatika-zerbitzuei aplikatu zaie Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeko 8. artikuluan bitarteko berekitzat jotako tresna-izaerako enteentzako enkarguetarako ezarritako araubide juridikoa, eta gastuen 2. kapituluaren erregistratu dira Animsa Udalari emandako zerbitzuak, eta 6. kapituluaren berriz, haietatik eratorritako inbertsioak.*

- *Jasandako BEZ kengarritik heldu diren kuoten kalkuluen zenbatespenak datu errealekin doitu dira.*

- *Oroitidazkiak informazioa ematen du kasuan kasuko urteko abenduaren 31n ebazteko dauden errekurtsioei buruz, baldin eta haiek direla-eta kalkulatu diren eragin ekonomikoak aipagarriak badira.*

Lehentasunezkoztat jotzen dugu 2014ko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako fiskalizazio-lanetan emandako gomendio hauek betetzea:

- *Balorazio-ponentzia berri bat onestea, katastro-balioak aldatuko dituen, lehendik daudenak gaurkotze aldera.*

- *Kontu-hartzaitzaren barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin. Hau da, erabateko fiskalizazioa egitea aurrez fiskalizatu diren eta barne-kontrola pasa duten gastuen lagin bati buruz, Udalaren diru-sarrerei dagokienez, besteak beste.*

- *Kontu-hartzaitzaren eta Langileen Alorraren arteko koordinazioa eta komunikazioa hobetzea, nominaren alde aurretiko fiskalizazioa bidezko eginen duten egokitzapenak egiteko.*

IV.4. KUDEAKETA-ALOR GARRANTZITSUAK

IV.4.1. Alderdi orokorrak

2014ko azaroan, 2015erako aurrekontuen proiektuari ezezkoa eman zion Osoko Bilkurak; 2015erako udal aurrekontua 2011ko ekitaldiko aurrekontuaren ondoz ondoko luzapen bat da. 2011ko aurrekontu hori 2014ko abenduan onetsi zuen Osoko Bilkurak. Luzapen espedienteak aurrekontu-kudeaketari buruzko 279/1998 Foru Dekretuan aurreikusitako baldintza guztiak betetzen ditu.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2015eko aurrekontuen likidazioa Alkatetzaren 2016ko maiatzaren 27ko Ebazpenaz onetsi zen; hartara, araudian ezarritako epea urratu zen.

2015eko kontuei dagokienez, Haur Eskolak eta Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoen kontuak, Gayarre Antzokiaren kontuak, eta Udalak partaidetzaren gehiengoa duen enpresa publikoen kontuak —Comiruña SA, Pamplona Centro Histórico SA, Asimec SA, Animsa eta Mercal-

ruña SA— kanpoko profesionalak auditatu dituzte, eta kasu guztietan —Haur Eskolak erakundearen kasuan izan ezik— aldeko iritzia eman dute.

Haur Eskolak erakundearen kasuan, iritzia aldekoa da, baina salbuespen batekin, zeren eta 2014an jasotako zerbitzuengatik izandako gastuei dagozkien 93.000 euro ez baitira kontabilizatu, aurrekontu-krediturik ez edukitzeagatik. Gastu hori 2015ean erregistratu zen.

Era berean, erakunde autonomoetan, udal sozietatean eta Gayarre Antzokia Fundazioan, jardura ekonomiko finantzarioaren legezketasuna betetzeari buruzko auditoria bat egin zen, eta kasu guztietan aldeko iritzia eman zen.

Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duten 2015eko fakturarik 2016ko aurrekontuari egotzi zaionik.

Gomendatzen dugu aurrekontuaren likidazio-espeditentea legez ezarritako epean onestea.

IV.4.2. Udaleko langile-gastuak

Langile-gastuak 76,25 milioi eurokoak izan ziren 2015ean. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 41 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 99,1 da. Guztizko gastua ehuneko 2,3 handitu da 2014koaren aldean.

Honakoak dira 2015ean sortutako langile-gastuak, kontzeptu ekonomikoen arabera sailkatuta:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2014)	Aitortutako betebeharrak (2015)
Hautetsien lansariak	911.707	896.982
Behin-behineko langileen ordainsariak	882.261	908.557
Funtzionarioen ordainsariak	38.890.675	40.835.882
Lan-kontratupekoen soldatak	730.375	699.713
Aldi baterako lan-kontratupekoen lansariak	2.741.300	2.582.063
Gizarte Segurantzza	9.261.055	9.278.133
Pentsioak:	20.838.612	20.781.127
Bestelako gizarte gastuak.	263.489	267.405
Langileria-gastuak, guztira	74.519.473	76.249.862

Ikusten den bezala, guztizko gastuak gora egin du, neurri handi batean 2012ko aparteko soldata ordaindu delako eta kontratatutako langileei familia-laguntza aitortu zaielako.

Urteen arteko aldean arrazoiek honako honetan zuten arrazoia: 2014an langileen gastuaz egiten zen sailkapena pertsona bakoitzak jabetzan zeukan lanpostuaren araberakoa zen, eta ez betetzen zuen lanpostuaren araberakoa. 2015ean, zuzendu egin da hori; horrenbestez, zenbatekoak ezin dira alderatu.

Udalak ez zuen plantilla organikoa onetsi, Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 235. artikuluan ezarritakoa gorabehera.

2015eko abenduaren 31n, kontu orokorrari buruzko oroitidazkian ageri den bezala, Udalak 1.408 lanpostu zeuzkan; horietatik, 1.332 funtzionario-araubidekoak ziren. Hona haien egoera:

Egoera	Lanpostu kopurua
Postu beteak	848
Hutsak	440
Lanpostu huts erreserbadunak	90
Izendapen askea	30
Guztira	1.408

Hurrengo taulan jaso dugu lanpostuak nola dauden banatuta Udaleko zuzendaritzen artean:

Udal Zuzendaritza*	Lanpostu kopurua	Guztizkoaren gainean (%)
Udaltzaingoa	490	34,8
Kultura, Hizkuntza Politika, Hezkuntza eta Kirola	202	14,3
Hiri Kontserbazioa eta Proiektuak	172	12,2
Gizarte Ekintza eta Komunitate Garapena	156	11,1
Hiri Ekologia eta Mugikortasuna	86	6,1
Ogasuna, Merkataritza eta Turismoa	85	6,0
Gobernu Gardena	66	4,7
Giza Baliabideak	58	4,1
Hirigintza eta Etxebizitza	48	3,4
Herritarraren segurtasuna	34	2,4
Herritarren Partaidetza, Berdintasuna eta Gizarte Ahalduntzea	11	0,8
Guztira	1.408	100

(*) Udal zuzendaritzak gaur egungoak dira, udal hauteskundeen ondoren egindako berrantolaketaen ondoriozkoak.

Bistan denez, lanpostuen ehuneko 35 Udaltzaingoari dagozkie; ehuneko 14 Kultura, Hizkuntza Politika, Hezkuntza eta Kirolari; ehuneko 12 Hiri Kontserbazioa eta Kirolari; ehuneko 11 Gizarte Ekintza eta Komunitate Garapenari; gainerako zuzendaritzetako lanpostuak ehuneko hamarretik behera daude.

- Nominaren barne kontrola.

Ganbera honen aurreko txostenetan errepikatu den bezala, barne-kontrolak ez du nominaren gaineko kontu-hartzerik egiten.

Horri dagokionez, kontu-hartzaitzak 2015eko kontu orokorrari buruz egindako txostenak berriaz ere azaltzen du lan hori ez egiteko arrazoiek lotura dutela gastua aurrekontuari ez aplikatzea-rekin, dokumentazio faltarekin, baliabide eta denbora eskasak izatearekin eta abarrekin.

- Klase pasiboen araubideari lotutako langileen finantzaketa.

Ganbera honen 2014ko ekitaldiari buruzko txostenean deskribatu zen bezala, klase pasiboen araubideari lotutako langileen finantzaketak honako iturri hauek dauzka: Udalaren ekarpena, jardunean diren klase pasiboen araubideko funtzionarioei nominan egiten zaien atxikipena eta Nafarroako Gobernuaren ekarpena.

10/2003 Foru Legeak, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorra arautzen duenak, hauxe ezarri zuen hamargarren xedapen gehigarrian:

“...Iruña, Tafalla eta Tuterako udalek euren montepioko klase pasiboen urteroko kostu garbia finantzatuko dute, ehuneko 77,1ean. Osotarako diru kopurua ez da inola ere 9.312.961 eurotik, 454.520 eurotik eta 1.082.046 eurotik gorakoa izanen, hurrenez hurren. urtetik aurrera, diru-muga horiei kasuko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeak pentsioetarako finkatzen duen igoera aplikatuko zaie. Aurreko kostu garbi osotarako finantzatzeko behar diren kopuru osagarriak Nafarroako aurrekontu orokorretatik hartuko dira...”

Udalak bere klase pasiboen urteko kostuari buruzko ziurtagiri bat egiten du, eta Nafarroako Gobernuari igortzen dio urtearen amaieran, azken horrek hurrengo urtean diferentziari dagokion diru-laguntza eman diezaion. Egiaztatu dugu 2014an ziurtagiri horrek ez zuela hartzen Udalak jasotzen duen diru-sarrera bat, Nafarroako Gobernuaren 90eko hamarkadako erabaki baten aplikaziotik heldu dena: suhiltzaileen kidegoko langileen atxikipenari dagokio erabakia da. Horrek berarekin dakar 2015ean gehiegizko finantzaketa bat egotea Udalak jasotako diru-laguntzan: 824.388 eurokoa da gehiegizko finantzaketa hori.

Egiaztatu dugu 2015eko ekitaldiari dagokion klase pasiboen urteko kostuaren ziurtagiriak diru-sarrera hori jaso gabe jarraitzen duela —884.343 euro izan ziren—; eta, gainera, garrantzi txikia-

goko beste akats batzuk ere bazituen. Akats horiek tarteko, Udalaren gastua jasotakoa baino 14.718 euro handiagoa izan zen.

Horri dagokionez, eta ekitaldiaren ondorengo egitate bezala, diru-sarrera ziurtagirian sartu ez bada ere, egiaztatu dugu Nafarroako Gobernuak Udalari lehen hiru hiruhilekoetan egindako ordainketak diru-sarrera hori aintzat hartu duela; hori dela eta, 2016an jasotako diru-laguntza zuzena da, laugarren hiruhilekoa oraindik ere ordaindu ez denean.

- Gizarte enplegu babestua

130/1999 Foru Dekretuak gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako gizarteratze- eta laneratze-programak garatzeko laguntza ekonomikoak arautzen ditu; programa horien barruan, gizarte enplegu babestuarena dago. Programa horretarako sarbidea oinarritzko gizarte zerbitzuek proposatutako pertsonetara mugatuta dago, eta pertsona horiek gizarteratze- eta laneratze-akordio bat sinatu behar dute zerbitzu horrekin.

Gizarte enplegu babesturako laguntzek prestazio ekonomikoak dakartzate, toki entitateek eta gizarte ekimenekoez sustatutako interes kolektiboko eta irabazi asmorik gabeko proiektuak babesteko; proiektu horiek beraiekin ekarri behar dute gizarte bazterketako egoeran dauden edo hartan egoteko arriskuan dauden pertsonen aldi baterako lan-kontratazioa, laneratzeko dauzkaten aukerak handituko dituzten ohiturak har ditzaten.

2015ean zehar, Udalak 226 pertsona kontratatu zituen, programa horren arabera; kopuru hori 2014koaren (228 pertsona) antzekoa da. 2,04 milioi euroko gastua ekarri zuen. Nafarroako Gobernuaren 1,43 milioiko laguntzak jaso zituen guztira. 226 horietatik, 206 sei hilabeterako kontratatu ziren; gainerako 20en kontratua mugagabea zen, eta aurreko urteetan hasitakoa zen.

- Hirigintza Gerentziako langileak

Erakunde autonomo honen langileen lagin bat aztertu dugu. Egindako azterketatik ondorioztatzen da, oro har, ordaindutako ordainsariak aritutako lanposturako ezarritakoak direla, eta egindako atxikipek egokiak direla eta zuzen kontabilizatuta daudela. Halere, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

a) Plantillak zortzi lanpostu huts dauzka, kontratupeko langileekin beteta daudenak: 1995etik, kasu batean; 1996tik, hiru kasutan; 1998tik, kasu batean; 1999tik, kasu batean; 2005etik, kasu batean, eta 2008tik, kasu batean. Araudi indardunak, ordea, ezartzen du administrazio-kontratupeko langileen kontratazioa kasu zehatzetan eta denbora jakin baterako egin behar direla.

b) 1996an, aldi baterako kontratazio bat egin zuen, urtebeterakoa, B mailako lanpostu baterako. Zenbait luzapen egin ondoren, 1999an, kontratu horren iraupena luzatu zen, eta ezarri zen lanpostu hori bete artekoa izan zela. Aurrerago, 2000n, lanpostu hori betetzen zuen pertsonak aurkeztutako erreklamazio baten ondoren, Gerentziako kontseilariak onetsi zuen A mailako lansarien ordainketa atzera-eraginez aitortzea, zeren eta jotzen baitzuen maila horretako eginkizunak beteak zituela.

Akordio horretan ez dago jasota kontratua edo lanpostuaren mailaren aldaketa; hala eta guztiz ere, hurrengo urtean, plantilla organikoak lanpostu horren maila aldatu zuen, eta A mailara aldatu zuen. Jokabide horrek berarekin dakarren arren B mailako lanpostuaren amortizazioa eta lanpostu horretan ari zen pertsonaren administrazio-kontratu azkentzea, pertsona hark berak jarraitu zuen lanpostuan, araudian lanpostu hori betetzeko ezarritako tresnak aplikatu gabe (sarbide murriztuko prozedurak, sustapena eta lanpostuak betetzeko bestelako bideak).

c) Egiaztatu dugu plantillan C mailan ageri den lanpostu batek B mailari dagozkion lansariak jasotzen dituela, plantillan halakotzat ageri ez den maila-aldaketa bat aplikatuta. Gero, ehuneko lauko lansari-igoerak onetsi ziren C eta D mailerako eta ehuneko bikoak A eta B mailerako. Plantillan lanpostuaren maila aldatu ezenez, C mailako ehuneko lauko igoerak aplikatu zitzaizkion, nahiz eta lansariak B mailakoak izan. Horrek berarekin dakar lanpostu hori betetzen duen pertsonak 2015ean behar baino 425,38 euro gehiago jaso izatea. Horri dagokionez, Udalak gai hori aztertu behar du eta behar diren erabakiak hartuko ditu.

Gainera, egiaztatu dugu ez zela behar zen ebazpena egin, eta pertsona horren antzinatasuna aitortu zela jaso beharreko osagarria onesteko.

d) Hirigintzako Gerentziako langileek jasotako osagarriak oro har araudiaren arabera diren arren, guztiak ez dira ageri onetsitako azken plantillan, ez eta 2015erako proposamenean ere.

Gure gomendioak:

- *Kontu-hartzaitzaren eta Langileen Alorraren arteko koordinazioa eta komunikazioa hobetzea, nominaren alde aurretiko fiskalizazioa bidezko eginen duten egokitzapenak egiteko.*
- *Klase pasiboen urteko kostuaren ziurtagirian sartzeari Nafarroako Gobernutik jasotako diru-sarrerara, Nafarroako Larrialdien Agentzian sartutako suhiltzaileen kidegoko langileengatiko kuota patronalari dagokiona, kontu orokorrari buruzko oroitidazkian deskribatu bezala.*
- *Ordaindutako igoeren aplikazio okerraren ondorioz behar zenetik gora hartutako lansariak erregularizatzea.*
- *Behar diren ebazpenak onestea pertsona baten egoeran edozein aldaketa onesteko (gradua, antzintasuna eta abar), baldin eta lansari-kontzeptuetan aldaketak badakartzate.*
- *Ekitaldi bakoitzerako plantilla organikoa eta langileen zerrenda onestea, eta langileek jasotako lansari-osagarri guztiak jasotzea.*
- *Plantillako lanpostu hutsen aldi baterakotasuna aztertzea, eta lege- eta aurrekontu-xedapenek horretarako bidea ematen dutenean, lanpostuak lege ezarritako prozeduren bitartez betetzea.*

IV.4.3. Udalaren ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea

Udalaren ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak 61,66 milioi eurokoak izan ziren 2015ean. 2015ean aitortutako betebeharren gutzitza ehuneko 33 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 93,5 da. Ehuneko 2,1 jaitsi ziren 2014koekin alderatuta.

Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak, milioi batetik gorakoak, honakoak izan ziren 2015ean:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2014)	Aitortutako betebeharrak (2015)	2015/2014: aldea (%)
Bide publikoa garbitzea	7.906.276	7.928.534	0,3
MUGAren kontratua	7.633.828	7.465.941	-2,2
Berdegunak mantentzea	3.854.437	3.917.037	1,6
Kultura azpiegituren jardueren kudeaketa	2.952.585	2.963.460	0,4
Mendekotasuna duten pertsonen arreta, jardueren kudeaketa	3.103.554	2.926.836	-5,7
Argiteria publikoaren kontsumoa	3.024.390	2.783.900	-8
Ikastetxeen garbiketarako kontratuak	1.992.736	2.015.081	1,1
Kirol azpiegituren jardueren kudeaketa	1.498.737	1.498.289	-
Argiteria publikoaren kontratua	1.474.385	1.451.719	-1,5
Arreta programak, jardueren kudeaketa	1.376.543	1.326.631	-3,6
Ibilgailuak erretiratzeko kontratua	1.169.721	1.169.721	-
Bide publikoa mantendu eta konpontzea	888.584	1.139.465	28,2
Kultur zabalkundeko programak	1.088.977	1.092.882	0,4
Diru-bilketa exekutiboa: bilketa eta diruzaintza	990.996	1.065.669	7,5
Osasungarritasun publikoaren arloko kontratuak	1.017.610	1.017.610	-
Sanferminetako jaiak	948.875	1.007.877	6,2

Gastuen honako lagin hau fiskalizatu da:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2015)
Ikastetxeen garbiketarako kontratuak	2.015.081
Kirol azpiegituretako jardueren kudeaketa	1.498.289
Bide publikoa mantendu eta konpontzea	1.139.465
Diru-bilketa eta diruzaintza exekutiboak	1.065.669
Harresietako mantentzea	180.000
Material teknikoko laborategiak	49.881
Guztira	5.948.385

Halaber, 2015ean egindako esleipen hauek berrikusi ditugu, bai eta urte horretan haiei dagoen gastu-exekuzioa ere:

Kontzeptua	Prozedura	Lizitatu- kopurua	Lizitazio- prezioa, BEZik gabe	Esleipen- prezioa, BEZik gabe
Udal eraikinak garbitu eta zaborra biltzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti	2	355.041	354.209
Zaharberitze obretarako aldarnioak jartzeko zerbitzua	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti	2	169.421	169.421
Udaleko organoetarako jakinarazpenak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti	1	107.711	93.966

Gure azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, orokorrean, fiskalizatutako laginean, gastuak justifikatuta, onetsita, kontu-hartzaitzak onartuta (aldez aurreko kontu-hartzaitza mugatua), egoki kontabilizatuta eta, oro har, 30 egunetik beherako epe batean ordainduta daudela, eta esleipenak araudian ezarritakoaren arabera egin zirela. Gainera, orokorrean, prozedurak ezarri eta aplikatu dira kontrolatze aldera zerbitzuak baldintza-orrietan ezarritako estipulazioen arabera betetzen eta justifikatzen direla; halere, alderdi horiek hobetu egin daitezke:

- Ikastetxeetako garbiketa-kontratuaren exekuzioaren gaineko kontrola mugatzen da aztertera ea esleipendunen eskaintzako ordu guztiak eta zerbitzu bereziak bete diren, horretarako zentro bakoitzean izendatutako pertsonak betetzen dituen parteen arabera. Baldintza-orrietan edo esleipen-hartzaileen eskaintzan bertan jasotako gainerako klausulak (TCak bidaltzea, zenbait produktu edo makina erabiltzea, iraupen luzeko langabetuak kontratatzea) ez dira kontrolatzen.
- Aldarnioak jartzeko zerbitzuaren esleipenean ez dago jasota beharrianezi buruzko aginduzkoa den txostena, ez eta kontratazioaren aurretiko txosten juridikoa ere.
- Jakinarazpenen zerbitzuari dagokionez —haren kontratuak indarrean jarraitzen du—, esleipen-hartzaileak ez du baldintza-orrietan ezarritako behin betiko bermea aurkeztu. Geroko egitate gisa nabarmendu dezakegu 2016ko irailaren amaieran aurkeztu duela.
- Kasu batean, kontratua atzerapenez egin da, baina horretarako justifikazioa jaso gabe.
- Diru-bilketa exekutiboaren zerbitzuaren gastua 66.799 eurokoa izan zen 2015ean; kopuru hori 2014ko abenduko faktura baten zati bati dagokio, zeren eta ez baitzitzaion urte hartako aurrekontuari egotzi aurrekontu-krediturik ez zegoelako; halere, bidezko aurrekontu-aldaketa izapidetu zen, araudi indardunari jarraituz.
- Kasuren batean egiaztatu dugu ez direla baldintza-orrietan exigitzen diren aseguru-polizen ordainketaren urteko egiaztagiria exigitzen.
- Bide publikoaren mantentzeari eta konponketari dagokion gastuan, ez dago jasota baldintza-orriko klausula batzuk betetzen direnik, hain zuzen ere kontratuaren exekuzioaren alderdi informatikoekin lotutakoak; halere, beste guztiaren gaineko kontrola egokia da.

Aurrekoaz gainera, Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriz adierazi izan du eduki ekonomikoa duten egintza batzuetan, aldez aurretiko kontu-hartzaitzak aurrekontu-kreditua

egoteaz, gastua kontu-sailaren arabera izateaz edo organo eskudunak onartuta egoteaz harantzagoko jarduketak egin dituela. Hala eta guztiz ere, gehitutako jarduketa horiek ez daude determinatuta eta ez dira ageri fiskalizatutako espedienteen edo dokumentuen.

Gure gomendioak:

- *Osoko Bilkurak erabakitzea, kudeaketa prozesuan daukaten garrantziari erreparatuta, zein alderdi egiaztatu behar diren eduki ekonomikoa duten ekintzen, dokumentuen edo espedienteen alde aurretiko kontu-hartzailetza egiterakoan.*

- *Behar diren baliabideak jartzea kontrolatze aldera baldintza-orrietan jasotako baldintzak betetzen direla eta zerbitzua emateari buruz esleipen-hartzaileek egindako eskaintzak betetzen direla.*

- *Baldintza-orrietan aseguru-polizen ordainketa dela-eta ezartzen diren egiaztagiria exigitea, bai eta behin betiko bermeak ere.*

- *Kontratuak egitea araudian aurreikusitako epeetan.*

IV.4.4. Inbertsioak

Udalak 2015ean egindako inbertsioek 11,79 milioi euro egin zuten. Zenbateko hori Udalak ekitaldian egindako gastu guztien ehuneko 6,3 da. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 78 da. Gastua 2014koa baino ehuneko 151 handiagoa izan zen, epai baten exekuzioaren ondorioz; izan ere, epai horrek Udala behartzen zuen desjabetze batean ukitutakoei 5,17 milioi euroko kalte-ordainak ordaintzera. Aparteko gastu hori kontuan hartu gabe, 2014koaren aldean ehuneko 40 handituko zen.

Ondoren, 500.000 eurotik gorako inbertsioetan egindako gastuak erakusten ditugu:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2014	Aitortutako betebeharrak, 2015	2015/2014: aldea (%)
Lurren hirigintza-kudeaketa	-	5.172.119	-
Berdegunak, azpiegiturak eta erabilera publikoko ondasunak	451.848	2.148.252	375
Bide publikoaren azpiegiturak	1.040.728	1.469.735	41
Etxebizitza eta ondare-erakinen zaharberritzea	-	625.080	-
Ikastetxe publikoak eta ikastegiak	687.631	534.596	-22

Inbertsioetan egindako honako gastu hauek fiskalizatu dira:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2015)
Berdegunak, azpiegiturak eta erabilera publikoko ondasunak	2.148.252
Etxebizitza eta ondare-erakinen zaharberritzea	625.080
Osasun-erakinetako zoonosi unitatea	50.533
Guztira	2.823.865

Gainera, honako esleipen hauek berrikusi ditugu:

Kontzeptua	Prozedura	Zenbat lizitatuak	Lizitazio-prezioa, BEZik gabe	Esleipen-prezioa, BEZik gabe	Esleipeneko baja (%)
ARZ-6ko ZN-10 Unitateko urbanizazio-proiektuko obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	13	3.688.225	2.257.194	39
Iturrara Berria-Trinitarioak 2. Fasea urbanizatzeko proiektua	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	6	1.691.059	1.108.827	34
Arga ibaiaren eskuinaldeko ibai-bazterra babestea, Vergel zubia eta Oblatas zubia	Negoziatua, Europar Batasunean publizitate-rik egin gabea	8	599.013	419.908	29,9

Oro har, fiskalizatutako obren exekuzioak eta kontratu-aldaketek, bai eta berraztertutako esleipenak ere, kontratu-legedia bete dute, eta gastuak onetsita, kontu-hartzailtzak baimenduta (aurreko kontu-hartzailtza mugatua), justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude; halere, aipatu behar dugu sei fakturatan hornitzaileei ordaintzeko epeak gainditu egin duela kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritako 30 eguneko epea.

Gomendatzen dugu behar diren neurriak hartzea kontratazio publikoari buruzko araudian hornitzaileei ordaintzeko ezarritako epeak betetzeko.

IV.4.5. Transferentzia-gastuak

2015ean, Udalak 26,77 milioi euro egiten duten transferentziak eta diru-laguntzak eman zituen. Honakoak izan ziren onuradunak:

	Arruntak		Kapitalekoak	
	Aitortutako betebeharra	2015/2014: aldea (%)	Aitortutako betebeharra	2015/2014: aldea (%)
Erakunde autonomoak	8.475.004	16	100.000	-79
Udal sozietateak	5.590.628	1	1.000.000	-1
Foru Komunitatea	324.427	54	-	-
Mankomunitatea	2.206.526	-24	-	-
Enpresa pribatuak	85.319	-12	-	-
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	6.514.314	-6	2.473.916	-53
Guztira	23.196.219	1	3.573.916	-48

Transferentzia eta diru-laguntza arruntek 23,2 milioi euro egin zuten. 2015eko ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 12 dira. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 94 da.

Aurreko urtearen aldean, ehuneko bat egin zuten gora, batez ere Hirigintza Gerentziari egingako ekarpenek gora egin zutelako (ehuneko 70).

Transferentziak eta kapitaleko diru-laguntzak 3,6 milioi eurokoak izan ziren; horrek Udalaren 2015eko gastu guztien ehuneko lau egiten du. Haien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 81 egin zuen. 2014an emandakoak baino ehuneko 48 gutxiago izan ziren, funtsean familientzako eta erakundeentzako diru-laguntzak ehuneko 53 jaitsi zirelako.

Transferentzia eta diru-laguntza arrunten eta kapitalekoen honako lagin hau fiskalizatu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2015)	Onuradunen kopurua	2015/2014: aldea (%)
Transferentzia arruntak			
Erakundeekiko hitzarmenatarako programak	1.116.578	73	-13
Garapen bidean dauden herrialdeentzako laguntza	1.042.000	32	-0,6
Kapital-transferentziak			
Haur Eskolen Erakunde Autonomoa	70.000	1	40

Oro har, emandako eta ordaindutako transferentzia eta diru-laguntza guztiak onetsita, fiskalizatuta eta egoki kontabilizatuta daude, kasuko akordioen edo deialdien arabera.

IV.4.6. *Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk*

Tributuengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2015ean aitortutako eskubideek 86,1 milioi euro egin zuten behera. Kopuru hori Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 45 da. Honako hauei dagozkie:

(euroak, milioitan)

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Betetakoa (%)	2015/14: aldea (%)
	2014	2015		
Zuzeneko zergak	51,7	52,7	104	1,9
Zeharkako zergak	4,4	5,1	97	14,0
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	27,1	28,4	113	4,7

Zenbateko handiena egiten duten aitortutako eskubideak honakoei dagozkie: hiri-kontribuzioa —27,91 milioi—, bide publikoaren aparkatze mugatuaren bidezko diru-sarrerak (MUGA) —12,5 milioi—, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga —9,46 milioi—, jarduera ekonomikoen gaineko zerga —8,86 milioi— eta hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga —5,64 milioi—.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurren gaineko kontribuzioa	0,3775	0,10 - 0,50
Landa-lurren kontribuzioa	0,8000	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,32 eta 1,40 bitarte	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	18	8-20
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5
Luxuzko gastuen gaineko zerga	8	10, gehienez
Etxebizitza hutsen gaineko zerga	0,151	0,04-0,2

Udalak ez du balorazio ponentzia gaurkotu 1998tik, eta ez da egokitu Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritako lurren kontribuzioko zerga-tasa bakarrera; izan ere, jarraitzen du oraindik ere landa izaerako ondasunei eta hiri-ondasunei tasa berezituak aplikatzen.

Iruñeko udalerrian, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legean jasotakoetatik zenbait inguruabar gertatzen dira, ponentzia berri bat onetsi ahal izateko: azken berrikuspenetik bost urte iragan dira eta aldaketak gertatu dira lurren erabileraren eta aprobetxamendu-baldintzetan.

Gai horrekin lotuta, eta itxieraren ondorengo egitate gisa, nabarmentzekoa da amaitu egin dela Iruñeko balorazio-ponentzia udal planaren determinazioei egokitzeko ponentzia partzialaren berrikuspena; hala eta guztiz ere, katastro-balioek 1999tik eguneratu gabe jarraitzen dute.

Aztertu dugun diru-sarreraren lagina honako hau da:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak	Kobranta (%)	2015/2014: aldea (%)
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	9.458.836	91	-0,9
Bingo-sarien gaineko zerga	789.063	98	-13,4
Isunak eta zehapenak	3.738.123	37	5,6
Gorpuak hobitik ateratzeko eta hobiratzeko hilerriko zerbitzua	762.345	92	-1,0
Adinekoei laguntzeko zerbitzua	708.167	99	5,3
Agiriak egin eta izapidetza	147.511	98	5,0

Arestian aipatutako tributuen eta diru-sarreraren lagin batean egiaztatu dugu ezen, orokorrean, haien likidazioa eta diru-bilketa ordenantzen eta arau erregulatzailen arabera egin direla. Egin-dako fiskalizaziotik hainbat alderdi nabarmendu nahi ditugu. Hona:

- 2015ean egindako ikuskapen jarduerak 913.970 euroko diru-sarrerak ekarri dizkiote Udalari; horietatik, ehuneko 57 EIOZari dagozkio.

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren araupetzea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean jasotakoa, zaharkituta dago zenbait alderditan —esate baterako, potentzia fiskalaren tarte araberako banaketan, kutsaduragatiko balizko salbuespenetan eta abarretan—, Estatuko gainerako autonomia erkidegoekin alderatuz gero.

Bestetik, partikularren arteko ibilgailu-transferentziak egiteko, zerga hori ordainduta eduki beharra dago. Horretarako, udalek ordaindu gabekoen zerrenda igorri beharko diote Trafiko Zuzendaritza Nagusiari, bera baita transferentziak kudeatzen dituena. Gaur egun, Udalak ez dio informaziorik bidaltzen aipatutako zuzendaritzari.

- Hilerriko zerbitzuak arautzen dituen ordenantzak, zeina 2002an egin baitzen, 30 urteko gehieneko epea ezartzen du horma-hilobien emakidarako; hala eta guztiz ere, egungo testuingurua aldatu egin da, eta gertatzen da ezin dela horma-hilobiak okupatzen jarraitu nahiz eta horma-hilobi liberrik egon eta haietarako eskaririk ez egon.

Gainera, zerbitzu horri dagokionez, egiaztatu dugu hilobi, horma-hilobi eta kolunbarioetarako emakidak, ehorzteekin batera, aitortutako diru-sarreraren ehuneko 25,5 egiten dutenak, kapitulu honetan erregistratzen direla, nahiz eta ondare bidezko diru-sarreraren kapituluan erregistratu beharko lirartekeen.

- Adineko pertsonentzako arreta-zerbitzua arautzen duen ordenantza (zuzeneko arreta pertsonala, elikadura eta garbitegia) 90eko hamarkadaren amaierakoa da, eta zaharkituta dauden alderdiak biltzen ditu.

Zerbitzu horren kudeaketa-prozedura aztertuta, ondorengo alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Emandako zerbitzuen emakidari edo aldaketari buruzko ebazpenik ez da egiten, hartutako prestazioetan aldaketak izanda ere.

- Erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, zenbait faktore hartzen dira kontuan: familia-unitate bakoitzak zerbitzu bakoitzetik jasotako orduak, errenta, ondarea eta unitateko kideen kopurua. Udalak aukera du erabiltzaileek emandako datuak alderatzeko Nafarroako Gobernuaren datu-basearekin, "mendekotzat" katalogatutako pertsonen kasuan; gainerako kasuetan, ordea, eskatutako dokumentazioan, ezin da beti egiaztatu emandako datuak zuzenak diren.

- Zerbitzuko tasen hileroko likidazioen ebazpenik ez da egiten.

• Diru-bilketa ez da premiamenduko bidetik egiten, araudian ezarritako prozeduraren arabera; halere, ordaindu gabekoen portzentajea munta txikikoa da, eta jo daiteke aitortutako eskubide guztien ehuneko bat inguru egiten duela.

Gure gomendioak:

• *Hilerriko zerbitzuak arautzen dituen ordenantza aldatzea, horma-hilobien kontzesiorako aldiak luzatuz.*

• *Diru-sarreraren 5. kapituluaren erregistratzea hilobien, horma-hilobien eta kolunbarioen emakidei dagozkienak.*

• *Adineko pertsonen arreta-zerbitzuari buruzko ordenantza gaurkotzea.*

• *Adineko pertsonen arreta emateko zerbitzuaren emakidari, aldaketari eta likidaziori buruzko ebazpenak egitea.*

• *Adineko pertsonen arreta emateko zerbitzuaren erabiltzailearengandik behar den informazioa biltzea, ordaindu beharreko tarifak egoki ezartzeko.*

• *Balorazio-ponentzia berri bat onestea, katastro-balioak aldatuko dituen, lehendik daudenak gaurkotze aldera.*

IV.4.7. Transferentzien bidezko eta ondarearen bidezko diru-sarrerak

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak 96,97 eta 0,4 milioi euro egin zuten hurrenez hurren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 51 dira.

Aurreko urteko datuekiko alderaketa:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		2015/2014: aldea (%)
	2014	2015	
Transferentzia arruntak	96.031.403	96.974.508	1
Kapital-transferentziak	2.618.024	414.611	-84

Ikusten den bezala, 2014koarekin alderatuta, jokabidea desberdina da transferentzia mota zein den; hartara, transferentzia arruntek pixka bat egin dute gora, ehuneko bat, eta kapitalekoek, berriz, nabarmen egin dute behera, ehuneko 84.

2015ean milioi bat eurotik gorako zenbatekoengatik jasotako transferentziak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	Aitorturiko diru-sarrerak, 2015	Transferentzien bidezko diru-sarreraren guztizkoaren gaineko ehunekoa	Aurrekontuko diru-sarreraren guztizkoaren gaineko ehunekoa
Nafarroako Zerga Ogasuneko zergetako parte-hartzea	55.362.693	57	29
Hiriburutza agiria	23.401.274	24	12
Eskubide pasiboen finantzaketarako ekarpena	7.763.466	8	4
Oinarrizko gizarte-zerbitzuarentzako diru-laguntza	3.426.912	4	2
Nafarroako Enplegu Zerbitzuko tailer-eskoletarako diru-laguntza	1.453.858	1,5	0,8
Nafarroako Gobernua: gizarte enplegua	1.427.114	1,5	0,7
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza: haur eskolak	1.290.294	1,3	0,7

Udalaren ondare bidezko diru-sarrerak, 2015ean, 2,3 milioikoak izan dira, eta diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 1,2 egin dute. Diru-sarrera horien osaera eta aurreko ekitaldiarekiko izan duten bilakaera honako hauek izan dira:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		2015/2014: aldea (%)
	2014	2015	
Banketxeetako kontuen korrituak	161.206	64.038	-60
Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak	64.367	70.918	10
Hiri finken eta lokalen errentamendua	746.013	495.623	-34
Emakidak eta kanonak	1.653.789	1.628.867	-2
Bestelako ondare diru-sarrerak	75.188	-	-
Guztira	2.700.563	2.259.446	-16

Aztertutako lagina, ondorengo hau da:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak (2015)	Kobratutakoa 2015
Banketxeetako kontuen korrituak	64.038	64.038
Hiri finken eta lokalen errentamendua	495.623	445.259

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, oro har, eskubide eta kobrantza guztiak egoki justifikatuta eta kontabilizatuta daudela. Nabarmenezkoa da eskubide horietan aurreko urtekoekin alderatuta izan diren aldeak. Interesen kasuan, arrazoia da 2014an eperako ezarpenak amaitu zirela; errentamenduen kasuan, berriz, arrazoia da normalean urte amaieran aitortzen direla Nafarroako Gobernutik heldutako diru-sarrerak; 2015ean, ordea, Gobernuaren emakida atzeratu egin zen, eta eskubide horiek ez ziren 2016ra arte erregistratu. Zehazki, 197.599 euro ziren.

IV.4.8 Inbertsio errealak besterentzea

Udalaren 2015eko diru-sarrerak, inbertsioen besterentzetik heldu direnak, 4,89 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 2,6 egiten dute. Guztiak lurren salmentari dagozkie.

Gainera, nabarmenezkoa da guztizko kopurutik, ehuneko 80 (3,91 milioi euro) 2014ko ekitaldiari buruzko txostenean Ganbera honek berrikusi zuen espediente bati dagokiola.

Lur-zati baten zati baten besterentzea aztertu dugu. Haren datu aipagarriak ondokoak dira:

Lur-zatia	Zertarakoa	Prozedura	Zenbat lizitatzailerik	Lizitazio-prezioa, BEZik gabe	Esleipen-prezioa, BEZik gabe
% 10 P.1 (ZN-ZU.I.XVI-TENISEKO HEGOALDEA)	Babes ofizialeko etxebizitzaren sustapena	Irekia	1	147.694	147.969

Egindako azterketatik ondorioztatzen dugu lur-zati horren salmenta hirigintza-legediaren eta aplikatzekoa den ondasunen gaineko araudiaren arabera izapidetu zen.

IV.4.9 Abenduaren 31n ebazteko dauden errekurtsio judizialak

Kontu Orokorraren oroitidazkiak atal bat badu, non informazioa ematen baita 300.000 eurotik gorako garrantzi unitario ekonomikoa duten eta 2015eko abenduaren 31n zeuden gorabeherei buruz. Honako hauek dira datu aipagarriak:

- Udalaren ebazpenen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, eraikin batean sortutako kalteen konponketari buruzkoa: exekuzio fasean dago eta kopurua finkatzekotan dago

(300.000 eurotik gorakoa izan daiteke). Gaur egun aztertzen ari da modurik ba ote dagoen erantzukizun zibileko aseguru arduraren dadin kopuru hori ordaintzeaz.

- Udalak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpen baten aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa; ebazpenean Udala zigortzen zen eraikin batean sortutako kalteak ordaintzera (horren kostua exekuzio fasean zehaztuko da, baldin eta Udalaren errekurtsoa ezesten bada). Zenbatekoa 300.000 eurotik gorakoa izan daiteke. Zehazteko dago ea erantzukizun zibilaren aseguruak bere gain hartu ote dezakeen ordainketa.

- Enpresa batek aurkeztutako prozedura arrunta, Iruñeko berdegune batzuen mantentze- eta kontserbatze-kontratua likidatzearen aurkakoa, Udalak ez betetzeagatik 2012ko urriko eta azaroko fakturak ordaintzeko betebeharra. Zenbatekoa 904.416 eurokoa izan zen.

Kasu horretan, 2015eko urtarrilean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak Udalaren jarduketa abalatu zuen. Gaur egun, ebazteko dago enpresak aurreko epai horren aurka aurkeztutako apelazio-errekurtsoa.

- Prozedura arrunta, zeinaren bidez demanda-egileak Udalari 534.810 euro erreklamatzeko baitzikio, hirigintza-jarduketako unitate batzuen birzatiitzea dela eta. 2015ean, Udalaren aldeko epai bat eman zen, baina demanda aurkeztutako aldeak apelazio errekurtsoa aurkeztu du, eta errekurtso hori ebazteko dago.

- Prozedura arrunt bat, zeinaren bidez demanda aurkeztu duenak Udalari 3.195.940 euro (BEZik gabe) erreklamatzeko baitzikio, lur-zati batzuen besterentzea dela eta. Prozedura lehen auzialdian izapidetzen ari da. Epai Udalaren aurkakoa bada, aipatutako kopurua ordaindu behar du, baina lur-zatiak berreskuratuko ditu.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapidetza bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko azaroaren 11n

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Iruñeko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostenak, Kontuen Ganberak onetsi duenak, iritzian salbuespen bat dauka. Aipatzen da kostu garbiaren kalkuluan —zeina beharrezkoa baita klase pasiboak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak ematen duen diru-laguntza jasotzeko, eta klase pasibo horien barruan desagertutako Nafarroako Larrialdi Agentziako suhiltzaileen kidegoko langileak daude—, *“ez dela sartu Nafarroako Gobernuaren eskutik jasotako diru-laguntza, 864.487 eurokoa, suhiltzaileen kidegoko langileen kuota patronalaren kontzeptuan ordaindutakoa; horrek, izan ere, kopuru hori egiten duen gehiegizko finantzaketa ekarri zuen”*.

Salbuespen hori ikusita, Udalak zuzentzat jotzen du orain arte jarraitutako irizpidea, eta 2014ko behin-behineko fiskalizazio-txostenean zentzu berean aurkeztutako alegazioan planteatutako jarrera berresten du; izan ere, jotzen du pentsioen kostu garbiaren kalkuluan 10/2003 Foru Legean araututako gastuak eta diru-sarrerak baizik ez direla sartzen. Udal honek, bada, eskatzen du 2014an aurkeztutako txosten teknikora jotzeko, non aipatutako jarrerari abala ematen baitzaio, eta alegazioa egiteko eskubi-deaz baliatuta, Ganberari eskatzen dio salbuespen hori behin betiko txostenetik ken dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 8an

Alkatea: Joseba Asirón

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak eman nahi dizkiogu Iruñeko Udalari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen. Halere, Ganbera honek honako alderdiak aipatu nahi ditu:

1- Kontuen Ganberak Iruñeko Udaleko klase pasiboen urteko kostu garbiaren kalkulua aztertzeko jarraitu duen argudioa ez da legearen interpretazio bat; izan ere, kostu garbiaren definizioetik heldu da: alegazioen testuan bertan adierazi bezala kostu garbi hori lortzen da toki entitate horretako klase pasiboetatik heldu diren gastuen eta diru-sarreraren arteko kenketa egitetik.

2- Udalak honako diru-sarrera hauek dauzka urtero klase pasiboak finantzatzeko: langile aktiboekin nominetan egiten diren atxikpenak (horren barne direla Nafarroako Gobernuari transferitutako suhiltzaileen kidegoko langileak); Nafarroako Gobernutik jasotako transferentzia, "kuota patronalaren kontzeptuan", Udalak eta Gobernuak 2006an lortutako akordioa betetzetik heldu dena —haren bidez arautu zen Iruñeko Udaleko Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan sartzea—; Nafarroako Gobernuaren ekarpena, urteko kostu garbia finantzatzeko egindakoa, 10/2003 Foru Legean ezarritakoa kontuan hartuta.

3- Klase pasiboen aurreikuspen sistema banaketa-irizpidearekin kudeatzen da, ez kapitalizazio-irizpidearekin. Horrexegatik urtero klase pasiboen finantzaketarako lortutako diru-sarrerak kontuan hartu beharrekoak dira urteko kostu garbia kalkulatzeko.

4- Transferentzia hori identifikatzen deneko kontzeptua zein den ere (kuota patronala, enpresa-kuota eta abar), klase pasiboen finantzaketarako diru-sarrera bat da eta, horrenbestez, kontuan hartu beharra dago kostu garbia kalkulatzeko, arestian aipatutako akordioa betez.

Azken batean, txostenaren ondorioak berresten ditugu, eta aplikatzekoa den araudia kontuan hartuta, Udalak klase pasiboen urteko finantzaketara jasotako diru-sarrera guztiak, haien jatorria edo sailkapena zein den ere, kontuan hartu behar dira urteko kostu garbia kalkulatzeko, eta horien barruan, 2006an Nafarroako Gobernuaren eta Udalaren artean egindako akordioaren arabera jasotakoak, berriaz aurreikusi zirenak Nafarroako Gobernuari atxikitako Udaleko suhiltzaileen kidegoko langileen klase pasiboak finantzatzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 11n

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

Tafallako Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Tafallako Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Tafallako Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (29. or.).
 - II. 2015eko kontu orokorrari buruzko iritzia (33. or.).
 - II.1. Auditoriaren finantzarioko iritzia (33. or.).
 - II.2. Legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia (34. or.).
 - III. Udalaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (35. or.).
 - III.1. 2015eko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (35. or.).
 - III.2. 2015eko aurrekontu-emaitza bateratua (36. or.).
 - III.3. Diruzaintza-gerakina 2015eko abenduaren 31n (36. or.).
 - III.4. 2015eko abenduaren 31ko balantze-egoera (37. or.).
 - III.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2015ean (38. or.).
 - IV. Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (39. or.).
 - IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2015eko abenduaren 31n (39. or.).
 - IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (42. or.).
 - IV.3. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako aholkuak betetzea (43. or.).
 - IV.4. Alderdi orokorrak (43. or.).
 - IV.5. Langileak (45. or.).
 - IV.6. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (47. or.).
 - IV.7. Inbertsioak (47. or.).
 - IV.8. Kontratazioa (48. or.).
 - IV.9. Aurrekontuko diru-sarrerak (48. or.).
 - IV.10. Hirigintza (49. or.).
 - IV.11. "Ciudad Deportiva Tafalla SA" sozietatea (50. or.).
- Eranskina. Udalaren 2015eko kontu orokorraren oroitidazkia.
- (Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA


Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Tafallako Udalaren eta haren menpeko enteen 2015eko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Kontu orokorren finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Tafallako Udalari eta haren menpeko enteei 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparruak, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko araudia ere.

Tafallako udalerririk 98,3 km²-ko azalera du, eta 2015eko urtarrilaren 1ean, 10.809 biztanle dauzka.

Tokiko zerbitzu publikoak emateari begira, Udalak hiru erakunde autonomo eta sozietate publiko bat sortuak ditu. Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaera honako grafiko honetan ikusten da:



2015eko ekitaldia ixtean, erakunde horien guztien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

a) Administrazioaren Sektore Publikoa:

Entitatea	Betebeharrak aitortuak	Eskubideak aitortuak	Langileak, 2015/12/31
Udala	8.534.432	9.573.320	136
Udalaren Musika Eskola	489.871	211.523	17
Kultur Patronatua	326.093	25.617	2
Kirol Patronatua	256.783	19.662	10
Bateratua, guztira	9.607.179	9.830.122	165

2015ean, Udalak 815.945 euroko ekarpena egin die bere erakunde autonomoei; hona hemen xehetasunak: Musika Eskola, 278.348 euro; Kultura Patronatua, 300.476 euro, eta Kirol Patronatua, 237.121 euro.

b) Enpresen Sektore Publikoa:

Entitatea	Diru-sarrerak	Gastuak	Emaitza	Langileak, 2015/12/31
Ciudad Deportiva de Tafalla SA	252.012	515.596	-263.584	-

Udala, gainera, zenbait mankomunitatetan dago sartuta: Mairagako Mankomunitatean — mankomunitate horren bidez ematen dira uraren ziklo integralaren zerbitzua eta hondakin solidoen eta hiri hondakinen kudeaketa eta tratamendua—, Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatean —horren bidez, gazteen kirol-jarduerak nahiz gizarte eta kulturaren arlokoak egiten dira—, eta Tafallako Eskualdeko Gizarte-zerbitzuen Udalarateko Elkartean.

Halaber, honako haueetan hartzen du parte: Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoa, eskualdeko Eraikinak eta Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoan (ORVE), ANIMSA-Nafarroako Udal Informatikaren Elkartea eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

Hurrengo taulan laburbilduta ageri dira ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Lagapena	Zerbitzu kontratuak
Administrazio-zerbitzu orokorrak	x				
Udaltzaingoa	x				
Musika eskola		x			
Hirigintza	x				
Ur-homidura			x		
Hiri hondakinak			x		
Kale garbiketa					x
Udal hilerria	x				
Euskararen udal zerbitzua	x				
Ikastetxeen mantentzea	x				
Ludoteka	x				
Kontsumitzaileen informaziorako zerbitzua	x				
San Sebastián Gizarte Etxea	x				
Gizarte zerbitzuak	x				
Etxeko arreta	x				
Liburutegia		x			
Kultur etxea		x			
Babestutako enplegu soziala	x				
Berdintasuna	x				
Gazteen Etxea	x				
Herritarrentzako Arreta Bulegoa	x				
Errolda	x				
Herritarren parte-hartzea	x				
Diru-bilketa	x				
Diru-bilketa exekutiboa	x				x
Futbol-zelaiak	x	x			
Tafallako kirol-hiria				x	
Ereta kirol-eremua		x			
Zidacos pilotalekua	x				
Patinatzeko pista	x				
Tenis pistak		x			
Musika eskola		x			
Lantegi-eskolak	x				

Entitatearen aurrekontu orokorra 2015eko abuztuaren 11n onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. Halaber, Osoko Bilkura horrek berak betetze-oinarriak onetsi zituen.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, Udalaren 2015eko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta hirugarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, ohar batzuk jaso ditugu gure iritzian eraginik ez duten alderdiei buruz (Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta alderdi orokorrak), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun arlokako iruzkin, ondorio eta gomendioak ere. Halaber, iruzkin batzuk badaude "Ciudad Deportiva Tafalla SA"ren kontuei buruz.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2015eko ekitaldiko kontu orokorrei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Jarduketa honen emaitzak Udaleko egungo alkateari azaldu zitzaizkion, bai eta 2015era arte kargu horretan aritutakoari ere, kasua bazen egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez dugu alegaziorik jaso.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Tafallako Udaleko eta haren mendeko erakunde autonomoetako langileei.

II. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Tafallako Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

- Udalaren erantzukizuna.

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non kontu horrek leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko uztailaren 26ko Osoko Bilkurak 2015eko kontuak onetsi zituen.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

- Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna.

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, gure lana egin dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatakoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia eratortzen da, salbuespenen bat ere baduena.

II.1. AUDITORIAREN FINANTZARIOKO IRITZIA

- Iritziaren oinarria, salbuespenekin.

Ondasunen inbentarioa 1993koa da, eta eguneratu gabe dago oraindik; horregatik, ezinezkoa izan da egoera-balantzeko ibilgetuaren kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2015eko abenduaren 31n, 46, milioi eurokoa zen.

Ez daude kuantifikatuta, ez eta kontabilizatuta ere, funtzionarioen pentsio-sistemak sorrarazten dituen montepioetako betebeharrak aktuarialak, montepio hori, lanean diharduen langile berririk sartzen ez denez, iraungitze-prozesuan badago ere. Abenduaren 31n, 43 pertsona zeuden pentsioak jasotzen zituztenak eta 17 pertsona jardunean zeuden.

- Iritzia.

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Laguntza teknikoetarako zenbait kontratu badaude amaiera-data gaindituta dutenak; hala eta guztiz ere, kasuko zerbitzuak ematen jarraitzen da, zeren eta ez baita beste esleipenik egin. Kasu honetan, argiteria publikoa berrikusi eta mantentzeko zerbitzua kontratazio zerbitzua emateko zain dago.

- Iritzia.

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, Udalaren 2015eko ekitaldiko, jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren 2015eko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala eta erakunde autonomoak)

III.1. 2015eko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikus- pena	Aldaketak	Behin be- tiko aurrei- kuspenak	Aitortutako eskubideak	Beteta- koa (%)	Ordainke- tak (%)	Ordain- keta (%)	Ordain- tzeke
1. Langile-gastuak	6.139.100	2.400	6.141.500	5.864.520	95	5.770.646	98	93.874
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.565.500	21.700	2.587.200	2.401.695	93	2.134.475	89	267.220
3. Finantza-gastuak	111.300	-4.300	107.000	86.993	81	76.702	88	10.291
4. Transferentzia arruntak	468.400	48.200	516.600	503.426	97	462.477	92	40.949
6. Inbertsio errealak	540.800	20.000	560.800	157.387	28	88.495	56	68.892
7. Kapital-transferentziak	20.000	-20.000						
8. Finantza-aktiboak								
9. Finantza-pasiboak	438.100	162.100	600.200	593.158	99	593.158	100	
Guztira	10.283.200	230.100	10.513.300	9.607.179	91	9.125.953	95	481.226

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspe- nak	Aitortutako eskubideak	Beteta- koa (%)	Kobran- tzak	Kobran- tzak (%)	Kobra- tzeke
1. Zuzeneko zergak	3.255.300		3.255.300	3.323.248	102	3.114.714	94	208.534
2. Zeharkako zergak	387.600		387.600	200.564	52	176.097	88	24.467
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.222.800	10.000	1.232.800	1.247.479	101	1.109.926	89	137.553
4. Transferentzia arruntak	4.365.400	58.000	4.423.400	4.382.328	99	4.248.828	97	133.500
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	491.300		491.300	510.292	104	403.296	79	106.996
6. Inbertsio errealen besterentzea	176.600		176.600	152.665	86	152.665	100	
7. Kapital-transferentziak	384.200		384.200	13.546	4	13.546	100	
8. Finantza-aktiboak		162.100	162.100					
9. Finantza-pasiboak								
Guztira	10.283.200	230.100	10.513.300	9.830.122	94	9.219.072	94	611.050

III.2. 2015eko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	10.560.841	9.830.122
- Aitortutako betebeharrak	-10.228.678	-9.607.179
Aurrekontu-emaiza	332.163	222.943
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak		-11.791
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak		
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak		162.100
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak		
Aurrekontu-emaiza doituia	332.163	373.252

III.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2015eko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.187.154	796.746
(+) Aurrekontua. Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	1.003.506	628.202
(+) Aurrekontua. Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	1.312.827	1.159.144
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	36.039	41.888
(+) Ordainketen itzulketak	218	100
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-1.154.874	-1.005.937
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-10.562	-26.651
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-1.682.259	-875.383
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.288.533	481.109
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	32.180	31.328
(+) Diru-sarreraren itzulketak	4.467	21.619
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	-571	-104
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	357.650	341.431
(+) Diruzaintzako funts likidoak	657.304	397.534
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak		
Diruzaintza-gerakina, guztira	162.199	318.897
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta		11.791
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina		
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	162.199	307.106

III.4. 2015eko ABENDUAREN 31ko BALANTZE-EGOERA

Aktiboa

Deskribapena	2014	2015
A Ibilgetua	45.739.905	45.897.532
1 Ibilgetu materiala	40.433.769	40.106.111
2 Ibilgetu ez-materiala	3.550.274	4.033.090
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak		
4 Herri-ondasunak	1.752.500	1.754.969
5 Finantza-ibilgetua	3.362	3.362
C Zirkulatzaila	3.051.879	2.253.086
8 Zordunak	2.378.007	1.851.095
9 Finantza-kontuak	673.872	401.991
Aktiboa, guztira	48.791.784	48.150.618

Pasiboa

Deskribapena	2014	2015
A Funts berekiak	42.061.648	42.820.350
1 Ondarea eta erreserbak	13.579.140	14.508.856
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	777.051	606.012
3 Kapitaleko diru-laguntzak	27.705.457	27.705.482
C Epe luzeko hartzekodunak	5.020.035	4.426.877
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	5.020.035	4.426.877
D Epe laburreko hartzekodunak	1.710.101	903.391
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.699.539	881.000
6 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	10.562	22.391
Pasiboa, guztira	48.791.784	48.150.618

III.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2015ean

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2015	Deskribapena	2014	2015
03 Hasierako izakinak			3 Amaierako erosketak		
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura			39 Izakinen balio-galtzeen hornidura		
60 Erosketak			70 Salmentak	636.854	667.542
61 Langile-gastuak	5.103.466	5.050.923	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	1.059.960	1.000.618
62 Finantza-gastuak	96.367	86.993	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.760.533	2.746.317
63 Tributuak			73 Errentaren gaineko zerga arruntak	575.298	563.807
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	2.474.556	2.389.568			
65 Gizarte prestazioak	828.401	825.724	75 Ustiapenerako diru-laguntzak		
66 Ustiapenerako diru-laguntzak			76 Transferentzia arruntak	4.334.724	4.327.828
67 Transferentzia arruntak	350.052	448.926	77 Kapitalaren gaineko zergak	211.271	213.688
68 Kapital-transferentziak	10.000		78 Bestelako diru-sarrerak	65.141	103.132
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak			79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak		
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	780.939	820.798	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)		
Guztira	9.643.781	9.622.932	guztira	9.643.781	9.622.932

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia	Deskribapena	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)			80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	780.939	820.798
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)			82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)		
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)			83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)		
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa Itxitakoak (Saldo zorduna)	3.888	214.786	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)		
89 Mozkin garbia, guztira (Saldo hartzekoduna)	777.051	606.012	89 Galera garbia, guztira (Saldo zorduna)		
Guztira	780.939	820.798	Guztira	780.939	820.798

IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa labur bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, honako hauek jaso ditugu: kudeaketa arlo garrantzitsu bakoitzari buruzko iruzkin nagusiak eta, Ganberaren iritziz, Udalak aintzat hartu beharko lituzkeen gomendio nagusiak, antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2015eko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 10,2 milioi euroko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 2 —hau da, 230.100 euro— handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez. Horren bestez, behin betiko aurreikuspenak 10,5 milioi eurokoak dira. Aldaketa horiek eragina dute, funtsean, finantza-pasiboen kapituluan, gastuetan, eta finantza-aktiboetan, diru-sarreretan.

Aitortutako betebeharrak 9,6 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 91ko betetze-maila izan dute. Maila horren arrazoia da gastu gutxiago egin izana, batez ere inbertsioetan; izan ere azken horiek behin betiko kredituen ehuneko 28 baizik ez dira.

Aitortutako eskubideak 9,8 milioi eurokoak dira, ehuneko 94ko betetze-mailarekin; portzentaje horren azalpena da, funtsean, zeharkako zergen (EIOZa), kapital-transferentzien eta finantza-aktiboen betetze txikia.

Beren izaerari erreparatuta, ia aitortutako gastu eta diru-sarrera guztiak arruntak dira. Gastuei dagokienez, ehuneko 92 egiten dute, eta diru-sarrerak, berriz, ehuneko 98.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	61	Tributu bidezko diru-sarrerak	48
Bestelako gastu arruntak	30	Transferentziak	45
Inbertsioak	2	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	7
Finantza-zama	7	Zorduntzea	
Guztira	100	Guztira	100

Hona Udalaren 2015erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2014koarekiko alderaketa:

	2014	2015	Aldea (%) 2015/2014
Aitortutako betebeharrak, guztira	10.228.678	9.607.179	-6
Likidatutako eskubideak, guztira	10.560.840	9.830.122	-7
Gastuen betetzea (%)	% 87	% 91	
Diru-sarreraren betetzea (%)	% 90	% 94	
Ordainketak (%)	% 87	% 95	
Kobratutakoa (%)	% 88	% 94	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	8.852.842	8.856.634	
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	8.756.475	8.769.641	
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	829.564	157.387	-81
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	546.272	593.158	9
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	9.643.781	9.663.911	
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	4.767.622	4.771.291	
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	567.059	166.211	-71
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	% 46,41	% 47,70	3
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	% 53,85	% 53,87	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	528.434	816.101	54
Aurrekontu-emaizta doitua	332.162	373.252	12
Aurrezki gordina	887.306	894.270	1
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	642.638	680.151	6
Aurrezki garbia	244.668	214.119	-12
Zorpetze-maila (%)	% 6,66	% 7,04	
Zorpetze-muga (%)	% 9,20	% 9,25	
Zorpetze-ahalmena (%)	% 2,54	% 2,22	
Diruzaintza-gerakina, guztira	162.199	318.897	97
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	162.199	307.106	89
Zor bizia	5.020.035	4.426.877	-12
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	% 52,05	% 45,81	-12
Zor bizia biztanleko	458	410	-11
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	5,66	4,95	-13

2015ean, Udalak ehuneko 6 gutxiago gastatu du; diru-sarrerak, halaber, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 7 txikiagoak izan dira. Gastuen atalean, beherakada orokorra da, batez ere inbertsio errealean; salbuespena transferentzia arrunten eta finantza-pasiboen kontu-sailak dira. Diru-sarreraren kapituluan, beherakada nagusiki heldu da kapital-transferentziak, finantza-pasiboak eta zeharkako zergak (EIOZa) gutxitu izatetik.

Bai gastu arruntek, bai diru-sarrera arruntek gora egin dute 2015ean, baina aldea ez da ehuneko 1era iristen bi kasuetako bakarrean. Egoera hori bera tributu-izaerako diru-sarreretan ere gertatzen da.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 816.000 eurokoa da; hori ehuneko 54ko igoera da 2014ko ekitaldikoarekin alderatuta.

Aurrekontu-emaizta doitua ehuneko 12 egin du gora, eta 373.252 eurokoa da.

2015ean, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak balio positiboak dauzkate.

Zorpetze-maila ehuneko 7,04koa da, eta ehuneko 9,25eko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berria hartzeko ahalmen ekonomikoa.

Diruzaintzako guztizko gerakina 0,3 milioikoa da, eta ehuneko 97 egin du gora 2014koarekin alderatuta. Gastu orokorretara bideratutakoa, halaber, 0,3 milioi eurokoa da.

Epe luzeko zorra 4,4 milioikoa da, eta ehuneko 12 egin du behera 2014koarekin alderatuta; zor hori —biztanle bakoitzeko 410 eurokoa dena, guztira— entitatearen diru-sarrerara arruntan guztizkoaren ehuneko 46 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen diru-sarrerara arruntan ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Tafallako Udalak 2006-2015 aldian honako bilakaera izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1 Zuzeneko zergak	2.626.797	2.639.421	2.843.728	3.093.026	2.969.916	3.033.857	3.104.311	3.383.687	3.269.790	3.323.248
2 Zeharkako zergak	417.273	640.837	664.037	471.422	962.413	395.350	531.657	26.644	277.352	200.564
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerara batzuk	1.199.462	1.708.511	1.683.117	1.887.818	1.542.372	1.659.709	1.425.168	1.436.352	1.220.480	1.247.479
4 Transferentzia arruntak	4.230.434	4.466.033	5.052.917	5.091.660	5.198.166	4.920.909	4.543.324	4.514.364	4.334.724	4.382.328
5 Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	412.103	307.534	335.699	399.121	418.274	356.742	415.252	546.982	541.435	510.292
6 Inbertsio errealen besterentzea	491.087	927.919	4.039.219	2.852.658	701.957	106.082	176.272			152.665
7 Kapital-transferentziak	1.797.531	1.310.054	4.076.988	9.805.858	6.176.907	3.048.648	2.418.531	609.367	567.059	13.546
8 Finantza-aktiboak										
9 Finantza-pasiboak				48.000		620.100	698.600	337.200	350.000	
Guztira	11.174.687	12.000.309	18.695.705	23.649.563	17.970.005	14.141.397	13.313.115	10.854.596	10.560.840	9.830.122

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1 Langile-gastuak	5.608.948	5.604.907	6.308.694	6.419.826	6.587.705	6.559.472	6.053.268	6.196.719	5.921.542	5.864.520
2 Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	2.460.535	2.633.635	2.801.473	2.882.232	2.851.509	2.629.306	2.497.212	2.548.961	2.484.881	2.401.695
3 Finantza-gastuak	284.427	344.796	346.619	235.779	94.403	117.803	145.629	101.933	96.367	86.993
4 Transferentzia arruntak	442.834	498.782	485.901	377.634	358.823	281.212	332.720	380.901	350.052	503.426
6 Inbertsio errealak	457.295	3.044.115	5.018.955	12.182.688	6.811.003	4.537.764	4.197.117	889.780	819.564	157.387
7 Kapital-transferentziak	50.000	551.083	1.768.698	93.400	35.954		6.000	137.600	10.000	
8 Finantza-aktiboak		48.000								
9 Finantza-pasiboak	660.928	703.061	624.400	675.574	619.914	618.655	540.438	567.165	546.272	593.158
Guztira	9.964.967	13.428.379	17.354.740	22.867.133	17.359.311	14.744.212	13.772.384	10.823.059	10.228.678	9.607.179

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, Udalak, 2007tik 2012ra, inbertsio-prozesu handia izan du, 35 milioi eurotik gorakoa, eta horrek, logikoa denez, kapital-transferentzien bidezko diru-sarrera handiak ekarri dizkio. 2012tik aurrera, ordea, ikusten da gastu arruntari eutsi egin zaiola eta inbertsioek, berriz, behera egin dutela. 2012. urte horretatik aurrerakoa erreferentzia gisa hartuta, guztizko diru-sarrerari kapital-transferentziak eta pasiboak kentzen badizkiegu, ikusiko dugu ezen, oro har, antzeko kopuruetan geratzen direla, nahiz eta beheranzko joera bat izan pixkanakakoa. 2015eko ekitaldian aitortutako betebeharraren guztizko kopurua 2006ko ekitaldikoa baino txikiagoa da.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da (ikus oroitidazkia) 2011tik 2015era.

Adierazlea	2011	2015	Aldea (%), 2015/2011
Zorpetze-ahalmena	% 2	% 2	0
Inbertsio indizea	% 31	% 2	-94
Gastu arrunta biztanleko	842 €	819 €	-3
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	447 €	441 €	-1

Ikus daitekeen bezala, 2011tik 2015era inbertsioak nabarmen ezeztatu dira eta gastu arruntek oso gutxi egin dute behera; aldi berean, tributu bidezko diru-sarrerei eta zorpetze-ahalmenari ia beren horretan eutsi zaie.

Horrenbestez, eta amaierako laburpen gisa, Tafallako Udalak zorpetze-ahalmen, aurrekontu-emaizta eta diruzaintza-gerakin positiboak dauzka, 2014an zeuden datuen ildo beretik. Egoera horrek aukera eman du zorpetzea termino absolutuetan gutxitzeko.

IV.2 AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren betetzea aztertu dugu, haren hiru atal nagusiei dagokienez:

Aurrekontu-egonkortasunaren araua: emaitza positiboa da, ondoren adierazten dugun bezala:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	816.101
Doikuntzak	-110.751
Finantzaketa-ahalmena	705.350

Gastuaren araua: 2015eko ekitaldiko gastu zenbakarria txikiagoa da 2014ko ekitaldiko baina, eta hari baimendutako aldearen tasa gehitu behar zaio, 392.879 eurokoa; horrenbestez, bete egiten da gastuaren araua:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2014	Aitortutako betebeharrak, 2015
Gastu ez-finantzarioa, guztira	9.682.406	9.014.021
Doikuntzak	-1.962.080	-1.586.210
Finantza-gastu doitua, guztira	7.720.326	7.427.811
Baimendutako aldearen tasa	% 1,30	
2015eko gastu konputagarria	7.820.690	

Finantza-iraunkortasunaren araua: 2015eko abenduaren 31ko zor bizia 4.426.877 eurokoa da. Zenbateko horrek 2015eko ekitaldiko diru-sarrera arrunten ehuneko 46 egiten du. Diru-sarrera horiek 9.663.911 eurokoak izan dira, eta zor biziaren muga, berriz, diru-sarrera arrunten ehuneko 110ekoa da.

Halaber, Udalak, oro har, betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia 29 egunekoa da 2015ean. Epe hori laburragoa da merkataritza-eragiketarako ordaintzeko legezkoa den aldia baino (30 egun natural, fakturen erregistroan faktura edo agiri baliokidea jasotzen denetik kontatuta).

IV.3 AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO AHOLKUAK BETETZEA.

Ganbera honen aurreko txostenari, 2014ko ekitaldikoari, dagokionez, esan beharra dago ezartzeko fasean dagoela *udal planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen xehaztapenen arabera egokitzeari* buruzko gomendioa.

Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek, besteak beste:

- *1993ko udal inbentarioa gaurkotzea, altak eta bajak kontrolatzeko sistema bat ezarriz.*
- *Udalaren ondasunak eskrituratu eta erregistratzeko prozesua burutzea, haien egoera juridikoa eta zertarako erabiltzen diren adieraziz.*
- *Udal funtzionarioen montepiotik eratorritako betebeharrak aktuarialak zenbatestea eta haiek balantzean erregistratzea.*

IV.4. ALDERDI OROKORRAK

- 2015eko aurrekontua 2015eko maiatzeko hauteskundeetatik sortu den udalbatzak onetsi du 2015eko abuztuaren 11n. Aurrekontuaren likidazioa 2016ko martxoaren 29an onetsi zen. Kontu orokorrak biltzen ditu Udalaren erabateko partaidetza duen sozietatearen finantza-egoerak, bai eta egoera-orri bateratu batzuk ere, nola baita Udalaren eta CDTSaren egoera-balantze bateratua, berari buruzko azalpen-ohar batzuekin.

- Gaur egungo egoera ekonomikoan, aurrekontuak ahalik eta egokien planifikatzeko, ahalik eta zehatzen ezagutu behar da, gure iritzian, udal funtzionarioen montepioko pentsio-sistematik heldu diren betebeharren gaur egungo balioa. Jakin beharra dago, nolahi ere, montepio hori iraungitzen ari dela, ez delako bertan sartzen lanean diharduen langile berririk.

- Ez da ikusi 2015ko ekitaldikoak izan eta 2016an kontabilizatutako kopuru handiko fakturarik.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1993an egin zen, eta ez da gaurkotu, nahiz eta udal zerbiztu ezberdinei atxikiriko ondasunen zerrenda bat badagoen, kostu-azterlanerako egindakoa.

Udalaren ondasunen eskrituratzeko eta erregistratzeko prozesua burutzeke dago.

Udalak, 2009ko abenduaren 1ean, eskritura publikoan gauzatu zuen "Hospital de Nuestra Señora de la Caridad" entitateari egoitza berri bat eraikitze dohainik egindako ondare-ondasuna den hiri-lursailaren lagapena, 862.963 euroko balioa duena. Lagapen hori baldintzatuta dago erabilera hogeita hamar urtez zahar-etxearena izatera, egoitza hori hirugarrenei lagatzeko eta errentan emateko baimenik gabe. Orain arte lagapen-baldintzak betetzen ari dira.

- Epe luzerako zorraren amortizazio-egutegia, 2015eko abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko taula honetan agertzen dena da (eurotan):

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Metatutakoa (%)
2016	417.585	9,43	9,43
2017	417.585	9,43	18,87
2018	417.585	9,43	28,30
2019-2023	2.191.206	49,50	77,80
2024-2032	982.916	22,20	100,00
Guztira	4.426.877	100,00	

- Udalak aurkeztutako oroitidazkiak ingurumena babestu eta hobetzeko eta klima-aldaketa samurtzeko edota horretara egokitze neurriei buruzko atal bat erantsi du.

- Karitatearen Ama Birjinaren ospitaleak, zeina entitate pribatu gisa definituta baitago, 140.000 euroko mailegu bat jaso du, 10 urtetan ordaintzekoa, Udalaren “comfort letter” batekin bermatua. Mailegu horren zor bizia 89.833 eurokoa zen 2015eko abenduaren 31n.

- Udala zenbait prozedura judizialean sartuta dago; hala eta guztiz ere, horietako bakarrak ere ez du eduki ekonomikorik. Hori dela eta, haren asmoak ezetsita ere, eragin ekonomikoa kostuak ordaintzeko zigorra besterik ezin da izan.

Gure gomendioak:

- *Udal funtzionarioen montepiotik eratorritako betebeharrak aktuarialak zenbatzea eta haiek balantzean erregistratzea.*

- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotu eta onestea.*

- *Inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, haren etengabeko gaurkotzea eta hark kontabilitatean ibilgetuarekin lotura izatea bermatu eta bideratzeko.*

- *Udalaren ondasunak eskrituratu eta erregistratzeko prozesua burutzea, haien egoera juridikoa eta zertarako erabiltzen diren adieraziz.*

IV.5. LANGILEAK

Langileen gastu bateratua 5,9 milioi eurokoa da; hau da, 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 61 eta gastu arrunten ehuneko 66.

2014ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu horrek ehuneko 1 egin du behera, ondoko taulan erakusten den bezala (eurotan):

Langile-gastuak	2014	2015	Aldea (%)
Goi-karguak	94.413	92.251	-2
Funtzionarioak	1.557.322	1.530.733	-2
Lan-kontratudun finkoak	749.246	691.608	-8
Aldi baterako lan-kontratudunak	1.522.368	1.548.572	2
Gizarte-zamak	1.998.194	2.001.356	0
1. kapitulua, guztira	5.921.542	5.864.520	-1

2015eko plantilla organikoaren behin betiko onespena Osoko Bilkurak egin zuen, eta legez ezarritako jendaurreko informazio-aldi baten ondoren 2015eko azaroaren 23an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

2015eko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 165 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Udala	Musika Eskola	Kultura Patronatua	Kultura Patronatua	Guztira
Funtzionarioak	34	3	1	1	39
Lan-kontratudun finkoak	17	7	1		25
Aldi baterako lan-kontratudunak	85	7		9	101
Guztira	136	17	2	10	165

2014ko ekitaldiarekin alderatuta, lau pertsona gehiago daude; horretaz gainera, lau pertsona lekuz aldatu dira, Kultura Patronatutik Udalera, jarduera ere lekuz aldatu delako.

Udalaren berariazko langileak —136 pertsona— honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Administrazio orokorra	13
Udaltzaingoa	21
Hirigintza	5
Obretako brigada	11
Parkeak eta lorategiak	2
Arlo ekonomikoa	6
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	3
Etxez etxeko laguntza	11
Gazteria	4
Haur Eskola	15
Babestutako enplegu soziala	13
Tailer-eskola	15
Kultur etxea	6
Gainerako zerbitzuak	11
Guztira	136

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta erlazio-kategoriarako erabakitakoak direla, eta bai kotizazioak bai egindako atxikipeak zuzenak direla. 2015eko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

2015ean, udal montepioko langile pasiboak, pentsio motaren bat jasotzen dutenak, 43 dira, 2014an baino bat gutxiago. Horrek berarekin ekarri du 825.000 euroko betebeharrak aitortzea. Banaketa ondorengo hau da: 16k erretiroko pentsioa jasotzen zuten; 21ek alarguntasun-pentsioa, eta 6k zurtasun-pentsioa. Bi ekitaldietan jardunean diren langileak 17 dira.

Montepioaren tamaina dela eta hartan funtzionario berriak sartzeko ez direnez, Udalaren zerbitzu ekonomikoek ez dute jotzen beharrezkoa denik azterlan aktuarialik egitea.

IV.6. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastu bateratuak 2,4 milioi eurokoak izan dira 2015ean.

Gastuak ekitaldiko gastu guztien ehuneko 25 hartzen du, eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 27. 2014ko ekitaldiaren aldean, ehuneko 3 jaitsi da.

Egiaztatu da kapitulu honetako gastuak zuzen sailkatuta daudela aurrekontuan, aldi egokian, eta behar bezala exekutatu direla; hori dela eta, zuzen kontabilizatuta daude; hala eta guztiz ere, hobetu daitezkeen honako alderdi hauek aurkitu ditugu:

- Egin gabe jarraitzen du kale-argiteria berrikusteko eta mantentzeko zerbitzua kontratazeko prozesuak; zerbitzu horren gastua, 2015ean, 23.000 eurokoa izan da.

- Ikusi da muga-egunera heldu diren laguntza teknikoko kontratuak badaudela, zeinetan zerbitzua ematen jarraitzen baita. Besteak beste, honakoak aipa ditzakegu: garbiketa, eremu urdineko aparkatzea, udaletxeko klimatizazioaren mantentze-lanak... Horri buruz, kontu-hartzaileak txosten bat eman zuen 2015eko ekainean, non aipatzen baitzuen ardura zuten zerbitzuek kasuko kontratazio-prozedurak hasi behar zituztela.

Gure gomendioak:

- *Argiteria publikoa berrikusteko eta mantentzeko zerbitzurako behar den kontratazio-prozedura egitea.*

- *Muga-egunera heldutako kontratuen lizitazio-prozedura gauzatzea.*

IV.7. INBERTSIOAK

2015eko ekitaldirako aurrekontu bateratuan aurreikusitako inbertsioetatik —0,5 milioi euro— ehuneko 28 baizik ez da bete. Gastu horrek ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 2 hartzen du. Exekuzioaren portzentaje txiki horren arrazoia da inbertsioetatik zati bat 2016ko ekitaldira aldatu direla, epe administratiboak direla eta.

2014ko ekitaldiarekin alderatuta, inbertsioetan egindako gastua ehuneko 80 gutxitu da.

Egiaztatu da kapitulu honetako gastuak zuzen sailkatuta daudela aurrekontuan, aldi egokian, eta behar bezala exekutatu direla; hori dela eta, zuzen kontabilizatuta daude.

IV.8. KONTRATAZIOA

2015ean zehar egindako esleipen-prozeduren xehetasunak (BEZa barne dela), ondasun arruntetako eta zerbitzu eta inbertsioetako gastuei lotutakoena, honako hauek dira:

Deskribapena	Kontratu mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa	Esleipenaren eta lizitazioaren arteko aldea
Sareak berritzea eta kaleak zolatzea. Martínez Espronceda kalea.	Obrak	Irekia, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	392.972	8	319.130	% -19
Kultur Etxean igogailua jartzea	Obrak	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	57.355	2	52.247	% -9
Poliziarako segurtasun materialaren hornidura	Hornidura	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	13.150	2	13.104	% 0
Entzerrerako hesiak (jartzeko laguntza)	Laguntza	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	12.500	1	12.500	% 0
Telefonia finkoa eta mugikorra	Laguntza	Irekia, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	72.600	2	32.518	% -55
Podologia Zerbitzua	Laguntza	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	18.963	2	18.118	% -4

Ekitaldiko esleipen prozeduretako espedienteen lagin bat aztertu dugu, eta egiaztatu dugu kontabilizatutako gastua arrazoizkoa dela, eta, alderdi garrantzitsuetan, kontratazio-espedienteak izapidetzerakoan kontratuei buruzko legedia bete egin dela, bai esleipenari dagokionez, bai exekuzioari dagokionez ere.

IV.9. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2015eko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuen zenbatekoa 9,8 milioi eurokoa izan da; horietatik, Udalari 9,5 milioi euro dagozkie, Musika Eskolari 211.000 euro, eta Kultura eta Kirol Patronatuei, 25.000 eta 20.000 euro, hurrenez hurren.

Ehuneko 98 eragiketa arrunten bidezko diru-sarrerak dira, eta gainerakoa kapital-eragiketen bidezkoak. Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak —4,7 milioi eurokoak— eta transferentzia arruntak —4.4 milioi eurokoak— nabarmentzen dira.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 94koa izan da.

2014ko ekitaldiaren aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 7 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak, 2014	Aitortutako eskubide garbiak, 2015	Aldea (%)
1. Zuzeneko zergak	3.269.790	3.323.248	2
2. Zeharkako zergak	277.352	200.564	-28
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.220.480	1.247.479	2
4. Transferentzia arruntak	4.334.724	4.382.328	1
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	541.435	510.292	-6
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	9.643.781	9.663.911	
6. Inbertsio errealen besterentzea		152.665	
7. Kapital-transferentziak	567.059	13.546	-98
9. Finantza-pasiboak	350.000		-100
Kapitaleko eta finantzaketa bidezko diru-sarrerak (6tik 9ra)	917.059	166.211	-82
Diru-sarrerak, guztira	10.560.840	9.830.122	-7

Diru-sarreretan gertatu den jaitsiera orokorra heldu da kapitaleko diru-sarreraren eta diru-sarrera finantzarioen jaitsieratik, zeren eta inbertsio errealen besterentzetik heldutakoetan igoera izan bada ere, kapital-transferentziak 13.000 eurokoak baizik ez baitira izan, eta ez baita finantza-pasiboen bidezko diru-sarrerarik izan. Kapital-transferentzietan izandako jaitsiera lotuta dago inbertsio errealetan egindako gastuekin, aurreko idatz-zatietan iruzkindu dugun bezala.

Transferentzia arrunten ehuneko 94 Nafarroako Gobernuak egindako ekarpenetatik dator. Zergei dago-kienez, hurrengo koadroan zerga mota bakoitzari dagozkion aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zergak	Aitortutako eskubideak (2014)	Aitortutako eskubideak (2015)	Aldea (%)
Lurraren kontribuzioa	2.024.259,81	2.059.433	2
Ibilgailuak	575.338,30	563.808	-2
Lurren balio-gehikuntza	211.271	213.688	1
JEZa	458.921	486.320	6
EIOZa	277.352	200.564	-28
Guztira	3.547.142	3.523.812	-1

Oro har, zergen bidezko diru-sarrek ehuneko 1 egin dute behera.

Udalak aplikatutako zerga-tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Zerga	2/1995 Foru Legea	Udala
Lurraren kontribuzioa	0,10 - 0,50	0,296
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	1 - 1,4	1,32 - 1,40
Lurren balio igoeraren gaineko zerga		
Gaurkotze-koefizientea	2,1-3,6	3,4-3,6
Zerga-tasa	8-20	9
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	2 - 5	5

Egindako azterketarekin, egiaztatu ahal izan dugu, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla.

IV.10. HIRIGINTZA

Tafallako Udalak bere baliabideekin egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Zerbitzuaren birtartez. 2015eko ekitaldiko plantilla organikoan adierazten denaren arabera, bertako jarduerak egiteko izendatutako langileak honako hauek dira: bi arkitekto, aparejadore bat eta bi administrari laguntzaile.

Horrez gainera, 2015eko ekitaldian, Udalak 13.000 euroko betebeharrak batzuk aitortu ditu, kanpoko hirigintza-aholkularitzagatik.

Tafallako Udalaren Antolamendu Plana 1994an onetsi zen. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Udala hasia da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko tramiteak egiten, 2011ko maiatzaren 13ko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin sinatzeko hitzarmena onartzeko hartutako erabakiaren bidez.

Udalaren lurzoru-ondarea ez da erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita kudeatzen. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori loturaduna eta bereizia izatea, eta era berean, ez da sortu ondasun horien sarreraren eta irteeraren berri ematen duen erregistrorik.

Udalak aurkeztutako oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzatutako hirigintza-jarduerak zehazten dira.

Hirigintza-jardueren lagin bat aztertu dugu, eta egiaztatu dugunaren arabera, behar bezala izapidetu dira, oro har.

Gure gomendioak:

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

IV.11. "CIUDAD DEPORTIVA TAFALLA SA" SOZIETATEA

"Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." pertsona bakarreko sozietatea da, eta Tafallako Udala du akziodun bakarra. 2001ean eratu zen, 300.000 euroko kapital sozialarekin. Kapital sozial horretan, bost kapital-gehikuntza egin dira, 13,9 milioikoak guztira.

2015eko ekitaldiko urteko kontuak txosten honi erantsitako oroitidazkian sartuta daude, eta Udaleko kontu-hartzaileak egin zuen horien finantza-kontrola berrikusketa.

Hurrengo taulan ematen ditugu 2008-2015 aldian zehar lortutako emaitzen bilakaeraren xehetasunak:

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Ekitaldiko emaitzak	-268.079	-215.659	251.277	288.328	262.869	-282.333	-297.033	-263.584
Ibilgetuaren amortizazioa	330.615	333.308	333.951	334.282	334.455	497.285	499.210	480.612
Emaitzak amortizatorik gabe	62.536	117.649	82.674	45.954	71.586	214.952	202.177	217.028
Kapitaleko diru-laguntza, emaitzari aplikatua	51.297	51.297	51.297	51.297	51.297	213.253	216.693	205.711
Amortizatorik gabe eta kapitaleko diru-laguntza aplikatu gabe ordaindutakoa	11.239	66.352	31.377	-5.343	20.289	1.699	-14.516	11.317

2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzeek eta galeren eta irabazien kontuek — urteko kontuetan sarturik daude— hurrengo taulan jaso ditugun honako saldo hauek erakusten dituzte:

Egoera-balantzea

Aktiboa	2014	2015	Pasiboa	2014	2015
Aktibo ez-korrontea	18.167.736	17.698.680	Ondare garbia	18.192.441	17.723.145
Lurra eta ondasun naturalak	2.630.900	2.630.900			
Eraikinak	15.403.249	15.403.249	Kapitala	13.917.000	13.917.000
Lanabesak	1.175	1.175	Borondatezko erreserbak	-57.152	-57.152
Bestelako instalazioak	3.815.966	3.827.523	Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboa	-2.730.885	-3.027.917
Altzariak	9.110	9.110	Ekitaldiko galerak	-297.033	-263.584
Amortizazio metatua	-3.692.665	-4.173.277	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	7.360.511	7.154.800
Aktibo korrontea	41.413	26.113	Pasibo ez-arrunta	-	-
Zordunak	25.416	21.759	Pasibo arrunta	16.708	1.648
Epe laburreko inbertsio finantzarioak	0		Epe laburreko zorrak		
Eskudirua	15.997	4.354	Merkataritzako hartzekodunak	16.708	5.514
Aktiboa, guztira	18.209.149	17.724.793	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	18.209.149	17.724.793

Galeren eta irabazien kontua

	2014	2015
Negoio-zifraren zenbateko garbia	44.812	46.301
Bestelako ustiatze-gastuak	-49.556	-34.963
Errentamenduak eta kanonak		-452
Konponketak eta kontserbazioa	-30.267	-12.745
Zerbitzu profesional independenteak	-6.559	-6.711
Aseguru-primak	-2.694	-2.761
Banku zerbitzuak eta antzekoak	-92	-150
Hornidurak	-4.575	-5.419
Bestelako zerbitzuak	-5.369	-6.725
Ibilgetu materialaren amortizazioa	-499.210	-480.612
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena	216.693	205.711
Beste emaitza batzuk	-9.918	
Ustiapeneko emaitza	-297.179	-263.563
Diru-sarrera finantzarioak	146	
Finantza-gastuak		-21
Emaitza finantzarioa	146	-21
Zerga aurreko emaitza	-297.033	-263.584
Ekitaldiko emaitza (galera)	-297.033	-263.584

Aurreko datuetatik ondorioztatzen denez, sozietatearen 2015eko ekitaldiko galerek ehuneko 11 egin dute behera aurreko ekitaldikoekin alderatuta.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko azaroaren 16an
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

